

## BESTELAKO XEDAPENAK

### HEZKUNTZA SAILA

## 3734

*AGINDUA, 2021eko ekainaren 1ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, deialdia egiten duena 2021-2022 ikasturtean unibertsitateko eta goi-mailako ikasketak egiteko dirulaguntzetarako, eta desgaitasun fisiko edo psikikoa eta mugitzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleen garraio-gastuak ordaintzeko dirulaguntzetarako.*

Euskal Herriko Autonomia Estatutuak –abendua 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartuak– 15. artikuluan ezartzen duenez, «Konstituzioaren lehen erabaki gehigarrian erabakitzen dena aplikatzeko, irakaskuntza, zabalera, maila, gradu, era eta espezialitate guztietan, Euskal Herriko Komunitate Autonomoaren kompetentziapean dago, Konstituzioaren 27. artikulua eta berori zehaztuko duten lege organikoei, haren 149.1.30 artikulua Estatuari ematen dizkion ahalmenei eta guztiori betetzeko eta bermatzeko behar den goi-inspekzioari kalterik egiteke».

181/1985 Dekretuaren eranskineko B.2 puntuak –unibertsitateen arloan estatuaren egitekoak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeari buruzkoak– ezartzen duenez, erkidego horri eskualdatzen zaio erkidego horretan administrazio-egoitza duten goi-mailako irakaskuntzako ikasleentzako beka-deialdiak arautzeko eta kudeatzeko zeregina (uztailaren 2ko 181/1985 Dekretuaren bidez, unibertsitateen arloan Transferentzien Bitariko Batzordeak 1985eko martxoaren 25ean hartutako erabakia onetsi zen, maiatzaren 25eko 1014/1985 Errege Dekretuan ezarritako baldintzen arabera).

Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legearen 8., 38. eta 44. artikuluetan arautzen ditu beka eta ikasketetarako laguntzei buruzko gaiak, eta honako hau ezartzen du: unibertsitateen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailari dagokio oinarritzko legedian bekei, kredituei eta ikasketetarako laguntzei buruz ezarritako sistema orokorra arau bidez garatzea.

Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legearen 8.2 artikuluan xedatzen denez: desgaitasuna duten ikasleak euskal unibertsitate-sistematik baztertuta gera ez daitezten, Jaurlaritzak arauak ezarriko ditu, bai eta aukera-berdintasunerako politikak bultzatu ere; bekek, laguntzak eta maileguak emango dizkie ikasle horiei.

Horregatik guztiagatik, eta kontuan hartuta dirulaguntzei buruz indarrean dagoen legeria, hain zuzen ere, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta haren erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginak, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren bidez onartuak, VI. tituluan eta VII. tituluko III. kapituluan adierazitakoa, honako hau

### EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da honako beka eta laguntza hauen oinarriak deitzea eta onartzea:

1.– 2021-2022 ikasturtean unibertsitateko eta goi-mailako ikasketak egiteko bekek, agindu honen 1. eranskineko oinarrien arabera.

2.– Mugitzeko zailtasun bereziak dituzten eta 2021-2022 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitate-ikasketak eta goi-mailako beste ikasketa batzuk egiten dituzten desgaitasun fisiko eta psikikoa duten pertsonen garraio-gastuak ordaintzeko laguntzak, agindu honen II. eranskinean jasotako oinarrien arabera.

2. artikulua.– Kreditu erabilgarria.

1.– Aurreko artikuluko 1. ataleko beketarako, 28.460.000 euro bideratuko dira orotara, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-sailen kontura.

2.– 100.000 euro erabiliko dira, Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-partiden kontura, aurreko artikulua 2. apartatuan adierazitako dirulaguntzetarako.

3.– Bi deialdi hauetara zuzendutako aurrekontua, dena den, handitu egin ahal izango da, baldin eta eskatutako laguntzen zenbateko osoa aurrekontua baino txikiagoa bada. Laguntzak ebatzi baino lehenago aldatu beharko dira kopuru horiek. Kopuru horiek aldatu edo deialdi horietarako funtsak agortzen badira, horren berri emango da Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren ebazpen baten bidez. Azken kasu horretan, deialdi honetarako erabilgarri dauden diru-funtsak amaituz gero, ez da hortik aurrera dirulaguntzarik emango.

#### AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Baimena ematen zaio Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariari jarraibide zehatzak eman ditzan, agindu honetan xedatutakoa betetzeko.

#### AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango diote Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindu hau EHAA-n argitaratu eta biharamunetik aurrera; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindu hau egunkari ofizial berean argitaratu eta biharamunetik aurrera.

#### AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 1a.

Hezkuntzako sailburua,  
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

## I. ERANSKINA

2021-2022 IKASTURTEAN UNIBERTSITATEKO ETA  
GOI-MAILAKO IKASKETAK EGITEKO BEKAK

## I. KAPITULUA

## HELBURUA ETA APLIKAZIO-EREMUA

1. artikulua.– Xedea eta izaera.

1.– Deialdi honen xedea da goi-mailako irakaskuntzetako ikasleei beka ematea, hain zuzen ere Euskal Autonomia Erkidegoan administrazio-egoitza izan eta 2021-2022 ikasturtean unibertsitateko edo goi-mailako ikasketa hauetakoren bat egiten dutenei Euskal Autonomia Erkidegoan edo Estatuko beste lurralde batean:

- a) Gradu unibertsitate-titulu ofiziala lortzera bideratutako ikasketak.
- b) Unibertsitate-masterreko titulu ofiziala lortzera bideratutako ikasketak.
- c) 25 urte baino gehiagokoak unibertsitatean sartzeko prestakuntza-ikastaroak, unibertsitate publikoetan emandakoak.
- d) Goi-mailako arte-ikasketak.
- e) Goi-mailako ikasketa militarrik.
- f) Goi-mailako erlijio-ikasketak.

Espezializazio-ikasketak egiteko beka eta unibertsitateen berezko tituluak ez dira deialdi honetan sartzen. Halaber, ezin izango da atzerriko unibertsitate-sistemen titulazioei dagozkien unibertsitate-irakaskuntzak egiteko bekarik eman.

2.– Deialdi honen arabera beka eskatzeko, ikasleek master ofizial bat egin behar dute. Ezin bestekoa da masterraren ikasturtea bat etortzea urte naturalarekin eta 2021. urtean ematea, eta aurreko ikasturtean ezin izan bazuten bekarik eskatu, matrikulazio-epea 2020ko abenduaren 31 baino geroagokoa zelako.

3.– Beka horiek dirulaguntzak dira. Araubide juridikoan aurreikusten ez den guztirako, hauxe aplikatuko da: Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua, eta batez ere Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren laguntzen eta dirulaguntzen erregimenari eta arau-hausteen eta zigorren araubideari buruzko xedapenak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arabera eta haren erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua.

## II. KAPITULUA

## BEKAREN OSAGIAK

2. artikulua.– Bekaren osagaien zerrenda.

1.– Beka hainbat osagaitan zatituko da, unibertsitateko eta goi-mailako ikasketak egiteagatik dirulaguntza jaso dezaketen kontzeptuen arabera.

Bekadun bakoitzari dagokion bekaren azken zenbatekoa zein den jakiteko, aplikagarriak zaizkion osagai guztiak batu beharko dira, honen guztiaren arabera: bekadunaren, haren familiaren eta ikasketen egoera, eta osagai horien arteko bateraezintasun-erregimena.

2.– Hauek dira bekaren osagaiak:

a) Oinarrizko zenbatekoa; horren barruan honako hauek:

– Matrikularen prezio publikoa.

– Familia-errentari lotutako oinarrizko zenbatekoa.

– Egoitzari lotutako oinarrizko zenbatekoa.

– Aprobetxamendu akademikoari lotutako oinarrizko zenbatekoa.

b) zenbateko osagarri aldakorra; horren barruan honako hauek:

– Ikaskuntzari eta eraldaketa digitalari laguntzeari lotutako zenbateko osagarria.

– Hiriarteko joan-etorriari lotutako zenbateko osagarri aldakorra.

3. artikulua.– Matrikula-osagaiaren zenbatekoa eta baldintza orokorrak.

1.– Matrikula-osagaia kontuan hartuko da, bekadunak 1. artikuluan zehaztutako ikasketak Euskal Autonomia Erkidegoko ikastegietan edo Estatuko beste ikastegi batzuetan egiten baldin baditu.

2.– Matrikularen zenbatekoa prezio publiko ofiziala izango da, 2021-2022 ikasturtean akademia-zerbitzuetarako ezarritakoa.

3.– Bekaren osagai hori emateko, bizikidetza- edo familia-unitatearen errentak ezin du gainditu 16. artikuluan zehaztutako 3. muga.

4.– Ikasleak 2021-2022 ikasturtean egiten duen matrikulako irakasgai eta kreditu guztiak barne hartuko ditu matrikularen zenbatekoak, baldin eta irakasgai eta kreditu guztiak titulu edo espezialitate bakarrarenak badira, titulu hori lortzeko beharrezkoak badira eta lehenengo edo bigarren matrikularenak badira. Baliozkotu, egokitu edo aitortu diren kredituak edo ikasgaiak ez dira matrikulatutako kreditutzat joko, ezta ordaindu ere.

5.– Matrikularen zenbatekoa kalkulatzeko, kontuan hartu behar dira honako arau hauek:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate publikoetan, prezioa izango da Hezkuntzako sailburuaren aginduak ezarritakoa. Agindu horren bidez, 2021-2022 ikasturterako Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko goi-mailako hezkuntzako zerbitzu publikoengatik ordaindu beharreko prezioak finkatuko dira, bai eta horien salbuespen eta murrizketez baliatzeko baldintzak ezarri ere.

b) Euskal Autonomia Erkidegoan dauden unibertsitate pribatuetan eta Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo dauden unibertsitate publikoetan edo pribatuetan, zenbatekoa ez da Euskal Autonomia Erkidegoko ikastegi publikoetan titulu eta ikasketa-plan berarentzat ezarritako prezio publiko ofiziala baino handiagoa izango.

Eskaini diren gradu- eta master-ikasketa ofizialetan, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate publikoetan, zenbatekoa ezarriko da esperimantalitasun-mailaren eta/edo jakintza-arloaren arabera, eta Hezkuntzako sailburuaren aginduko eranskinetan ezarritakoari jarraituko zaio. Agindu horren bidez, 2021-2022 ikasturterako Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko

goi-mailako hezkuntzako zerbitzu publikoengatik ordaindu beharreko prezioak finkatuko dira, bai eta horien salbuespen eta murrizketez baliatzeko baldintzak ezarri ere.

EHUn baliokiderik ez duten eta, beraz, esperimentaltasun-gradua prezio publikoei buruzko aginduan jasota agertzen ez den Gradu ikasketen kasuan, ikasketa horien irakaskuntza-adarraren eta EHUn ematen diren beste antzeko ikasketa batzuei esleitutako prezioen arabera kalkulatu da matrikularen zenbatekoa.

c) Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako ikastetxeetan ematen diren unibertsitateaz kanpoko goi ikasketetarako, Hezkuntza sailburuaren aginduak, Hezkuntza sailak 2021-2022 ikasturtean ematen dituen hezkuntza-zerbitzuen prezio publikoak finkatzen dituenak, ezartzen duena izango da prezioa.

Aurreko egoera guztietan, matrikula osagaiaren zenbatekoa ezin izango da eskatzaileak ordaindutakotik gorakoa izan.

4. artikulua.– Familia-errentari lotutako oinarrizko zenbatekoa eta betekizunak.

1.– Ezohiko osagaia erabiliko da ekonomia-egoera bereziki zaila duten pertsonen ikasten laguntzeko. Horregatik, eskatzaileek honako betekizun hauek bete beharko dituzte:

a) Ikasketa presentzialak egitea.

b) Gutxienez ere, 60 kredituko matrikula egin izana. Araudi akademikoarengatik gradu bukaerako lanean matrikulatu ezin diren gradu azken kurtsoko ikasleek, matrikulatu diren kredituen eta gradu bukaerako lanaren kredituen batuketara, gutxienez, 60koa bada, izango dute osagai hori jasotzeko aukera.

c) 29. artikuluan zehaztu den errendimendu akademikoa betetzea.

d) Bizikidetzaren edo familia-unitatearen errentak ezin du gainditu 16. artikuluan zehaztutako 1. muga.

e) 2020ko zerga-ekitaldian laguntza sozialetako batzuk kobratzen ari zirela justifikatzea, hala nola Lanbideek antolatzen dituen diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako dirulaguntza osagarria, eta Gizarte Segurantzako Institutuko Nazionalak eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak kudeatzen dituzten laguntzak, bai eta eska daitezkeen beste udal edo foru-laguntza batzuk ere.

2.– Familia-errentari lotutako oinarrizko zenbatekoa 1.700 eurokoa da.

3.– Familia-errentari lotutako oinarrizko zenbatekoa ez da bateragarria ikaskuntzari eta eraldaketa digitalari laguntzeari lotutako zenbateko osagarriarekin.

5. artikulua.– Egoitzari lotutako oinarrizko zenbatekoa eta betekizunak.

1.– Egoitzari lotutako oinarrizko zenbatekoa egoitzaz aldatzeko ikasleek egin behar dituzten gastuak ordaintzen laguntzeko erabiliko da. Egoitza-aldaketa ikasturtean egingo da, ohiko bizilekuan bizi beharrean, alokatutako pisu batean edo ikasle-egoitza batean edo antzeko baliabide batean bizitzeko. Dirulaguntza emateko, honako baldintza hauek bete behar dira:

a) Ikasketak presentzialeko erregimenean egin behar dira ikasturte osoan. Ikasturte osoa 3 hilabetekoa, 3 hilabetetik gorakoa edo 6 hilabetekoa bada, egoitzaren osagaia % 50 txikiagoa izango da. 3 hilabetetik beherako egonaldietarako ez da egoitzaren osagairik izango.

b) Ostatu-gastua behar bezala egiaztatu behar da; Hezkuntza Sailak kontrakoa baimentzen ez baldin badu, ostatu hori ikastegiaren udalerrri berean, edo albokoan egon beharko da.

c) Ohiko bizilekutik ikastegirainoko distantziak 50 kilometrokoa edo handiagoa izan behar du.

Bigarren lauhilekoan/seihilekoan ohiko helbidetik at bizi behar izatea ordura arte justifikatzerik ez badago, eskabidean espresuki adierazi beharko da, bai eta aldi hori justifikatzeko dokumentazioa martxoaren 31 baino lehen aurkeztu ere. Kasu horietan, bigarren lauhilekoan/seihilekoan ohiko helbidetik at bizi behar izatea justifikatzeko dokumentazioa aurkeztu arte ez da eskabidea ebatziko.

Ikastetxetik hurbilen dagoena edo eskatzailearen aita edo ama normalean bizi dena joko da familia-helbidetzat, legezko helbidearekin bat ez etorri arren.

2.– Ikasleak behar bezala egiaztatu beharko du ikasturte osoan ohiko bizilekutik kanpoko egoitza batean bizi dela, honako agiri hauetako bat aurkeztuta:

a) Alokairuko kontratuaren kopia, ikaslearen izena agertu beharko duena, fidantza-ordainketaren eta lehen hileko ordainketaren frogagiriaren kopia. Ez dira odolkidetasunaren 4. mailara eta ahaidetasunaren 2. mailara arteko senideenak diren etxebizitzaren alokairuko kontratuak onartuko.

b) Egoitzan edo antzeko leku batean toki bat erreserbatu dela egiaztatzeko agiria, lehen hilabetearen zenbatekoa ordaindu izanaren egiaztagiria.

Bi kasuetan, Administrazioak, beharrezkotzat jotzen bada, beste alokairu-hilabete batzuk edo egoitza ordaindu izanaren egiaztagiriak eskatu ahal izango ditu.

3.– Errolda kolektiboan jasota dagoen ohiko bizilekutik ikastegirainoko distantzia 50 kilometrokoa baino txikiagoa baldin bada, egiaztatu egin beharko da ikasturtean zehar ohiko bizilekutik kanpo bizitzea ezinbestekoa dela, garraiobideen eskasia eta eskolen orduak direla-eta.

4.– Eskatzailearen ohiko bizilekutik ikastegirainoko distantzia laburrena kalkulatzeko eta ikastegia kokatzeko, Google Maps informatika-tresna, honako web-helbide honetan erabilgarri dagoena, erabiliko da: <https://maps.google.es/>. Horretarako, autoz joateko distantziarik laburrena kalkulatzeko aukera hautatuko da, autobideak eta bidesariak barne hartuta. Bilaketan, betiere, ohiko helbidea jarri behar da lehenik, eta ikastetxea geroago.

5.– 15.3 artikulua arabera, familiaren laguntza ekonomikorik gabe bizitzeko baliabideak dituzten ikasleek ezingo dute eskuratu egoitza-osagaia; izan ere, ohiko bizilekutzat hartuko da ikasturtean zehar izango duten bizilekua, nahiz eta erroldan ageri den bizilekua ez izan.

6.– Bekaren osagai hori emateko, bizikidetzaren edo familia-unitatearen errentak ezin du gainditu 16. artikuluan zehaztutako 3. muga.

7.– Bizikidetzaren edo familia-unitatearen errentaren arabera izango da egoitzari lotutako zenbatekoa oinarri hauetako 16. artikuluan zehaztutako muga barruan kokatuko da:

a) Errentak 1. muga: 3.600 euro.

b) Errentak 2. muga: 3.250 euro.

c) Errentak 3. muga: 2.400 euro.

8.– Egoitzari lotutako oinarriko zenbatekoa ezin da bateratu hiriarteko joan-etorriari lotutako zenbateko osagarri aldakorra.

6. artikulua.– Aprobetxamendu akademikoari lotutako oinarrizko zenbatekoa eta betekizunak.

1.– Aprobetxamendu akademikoari lotutako oinarrizko zenbatekoa ikasleen lana saritzeko erabiliko da, baldin eta ikasleek aurreko ikasturtean gutxienez 60 kredituko matrikula egin bazuten, eta 2020-2021 ikasturtean batez besteko nota 28. artikuluan zehaztutakoa bada.

2.– Bekaren osagai hori emateko, bizikidetza- edo familia-unitatearen errentak ezin du gainditu 16. artikuluan zehaztutako 3. muga.

3.– Osagai horren zenbatekoa 100 eta 250 euro artekoa izango da, 28. artikuluan zehaztutako batez besteko notaren eta ikasketa-motaren arabera. Masterren kasuan, 250 euroko zenbatekoa jasoko dute gehienez.

4.– Aprobetxamendu akademikoari lotutako oinarrizko zenbatekoa bikoiztu egingo da 1. mugaren barruko pertsonen kasuan.

7. artikulua.– Ikaskuntzari eta eraldaketa digitalari laguntzeari lotutako zenbateko osagarria eta betekizunak.

1.– Unibertsitateko edo goi-mailako ikasketak egiteko ikasleek eskuratu behar dituzten liburuen edo/eta materialaren gastuak arintzea da ikaskuntzari eta eraldaketa digitalari laguntzeari lotutako zenbateko osagarriaren helburua.

2.– Bekaren osagai hori emateko, bizikidetza- edo familia-unitatearen errentak ezin du gainditu 16. artikuluan zehaztutako 3. muga.

3.– Bizikidetza- edo familia-unitatearen errentaren arabera izango da ikaskuntzari laguntzeko prozesuari lotutako zenbatekoa oinarri hauetako 16. artikuluan zehaztutako mugen barruan kokatuko da:

– Errentak 1. mugan: 475 euro.

– Errentak 2. Mugan: 375 euro.

– Errentak 3. mugan: 300 euro.

4.– Ikaskuntzari eta eraldaketa digitalari laguntzeari lotutako zenbateko osagarria ez da bateragarria familia-errentari lotutako oinarrizko zenbatekoarekin.

8. artikulua.– Hiriarteko joan-etorriari lotutako zenbateko osagarri aldakorraren betekizunak eta zenbatekoa.

1.– Hiriarteko joan-etorriari lotutako zenbateko osagarri aldakorraren helburua da ikasleari laguntzea familia-egoitzatik ikastetxerako garraioaren gastua arintzen. Ohiko etxebizitza errolda kolektiboan jasotakoa izango da, Euskal Autonomia Erkidegoaren barnean.

2.– Bekaren osagai hori emateko, bizikidetza- edo familia-unitatearen errentak ezin du gainditu 16. artikuluan zehaztutako 2. muga.

3.– Ikasketa presentzialen kasuan, hiriarteko joan-etorriari lotutako zenbateko osagarri aldakorra, eskatzailearen ohiko bizilekutik ikastegiraino dagoen distantzia laburrenaren arabera kalkulatu da, honela:

– 5 eta 10 kilometro artean: 192 euro.

– 10 kilometro baino gehiagotik 30 kilometro arte: 386 euro.

– 30 kilometro baino gehiagotik 50 kilometro arte: 763 euro.

– 50 kilometro baino gehiagotik 200 kilometro arte: 993 euro.

4.– Ikasketa erdipresentzialak, lineako laguntzarekin batera, direnean, hiriarteko joan-etorriari lotutako zenbateko osagarri aldakorra 200 eurokoa izango da, betiere, ohiko bizilekutik ikastegira edo tutoretza-saioak jasotzeko ikastegi eskuordetura dagoen distantzia laburrena 50 kilometrotik gorakoa baldin bada, eta Euskal Autonomia Erkidegoan badago.

5.– Eskatzailearen ohiko bizilekutik ikastegirainoko distantzia laburrena kalkulatzeko eta ikastegia kokatzeko, Google Maps informatika-tresna, honako web-helbide honetan erabilgarri dagoena, erabiliko da: <https://maps.google.es/>. Horretarako, autoz joateko distantziarik laburrena kalkulatzeko aukera hautatuko da, autobideak eta bidesariak barne hartuta.

6.– Hiriarteko joan-etorriari lotutako zenbateko osagarri aldakorra eta egoitzari lotutako oinarriko zenbatekoa bateraezinak dira.

9. artikulua.– Desgaitasunen bat duten ikasleei zuzendutako arauak.

1.– % 65eko desgaitasuna edo handiagoa legez aitortuta duten ikasleek % 50era arte murriztu ahaliko dute ikasgai-kopurua; murrizpen horrek ez du eraginik izango laguntzetan.

2.– Matrikula osorik egiten duten ikasleek % 50 gehiago jasoko dute dagokien bekaren osagai guztietan, matrikula-prezio publikoen salbuespenean izan ezik.

### III. KAPITULUA

#### BETEKIZUN OROKORRAK

10. artikulua.– Betekizun orokorrak.

Beka eskuratzeko, honako betekizun hauek bete beharko dira:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean errolatuta egotea, 2020ko abenduaren 31n. Salbuespen gisa, baldintza hori ez da eskatuko sostengatzaile ekonomiko nagusietako batek gutxienez zergak Euskadin ordaintzen dituenean.

b) Eskatzaile atzerritarrek, erroldarekin batera, Espainiako nazionalitatea izatea edo Espainian legez bizitzea. Europako Erkidegokoak ez diren atzerritarrek, eskabidea aurkezteko epea bukatzen den egunerako, legezko bizilekua dutela egiaztatu beharko dute. Ez dituzte laguntza hauek jasoko ikasketak direla-eta bertan daudenek edo bertan bizilekua dutenek, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei buruzko eta haien gizarteratzeari buruzko urtarilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoan xedatutakoarekin bat etorritik.

c) Bizikidetzatzaile edo familia-unitateko kideek 2020an zergak ordaintzeko duten betebeharrari dagokionez, ekonomia-sostengatzaile nagusietako batek behintzat Euskal Autonomia Erkidegoko foru-aldundi batean ordaindu behar ditu zergak.

d) Matrikula egitea eta 2021-2022 ikasturtean 1. artikuluan zehaztutako ikasketetako bat egitea. Aldi batera hainbat ikasketa egiten badira, horietako bakarrentzat baino ez da beka jasoko, dagokion unibertsitateak ikasketa bakar modura eskaintzen duen gradu edo titulazio bikoitzak direnean izan ezik, betiere Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioan horrelakoak ikasketa-kode bakar batekin erregistratuta badaude.

e) Ikasleek ez izatea bekarekin egin nahi dituzten ikasketen maila bereko edo handiagoko titulurik, eta ez betetzea horrelako tituluren bat eskuratzeko legezko betekizunak.

Ondorio horietarako, diplomatura, ingeniaritza teknikoa edo arkitektura teknikoa dutenek beka lortu ahal izango dute eskuratutako titulua ordezkaturako duten gradu-ikasketak egiteko (edo gradura egokitzeakoak). Hala ere, titulazio hori lortzeko gainerako kreditu guztiak matrikulatu beharko dituzte.

Dena den, eta aurreko paragrafoan esaten dena alde batera utzita, Goi Hezkuntzarako Gaikuntzen Marko Espainolaren (MECES) 3. mailara (Masterra) esleitutako graduko titulu ofizial dutenak, edo MECESeko 3. mailarekin (Masterra) bat datorren Arkitektoaren, Ingeniariaren, Lizentziatuaren, Arkitekto Teknikoaren, Ingeniari Teknikoaren edo Diplomadunaren titulu ofizial bat dutenak izan ahal izango dira unibertsitate-masterraren titulu ofizial batera bideratutako irakaskuntzak egiteko bekaren onuradunak, baina inola ere ez 2. mailari atxikitako Graduetan beka jarduteko.

f) Ez jasotzea unibertsitateko eta goi-mailako ikasketak egiteko bekarekin bateraezina den bekarik edo laguntzarik.

#### 11. artikulua.– Bateriaezintasun-betekizuna.

1.– Beste erakunde batzuek edo erakunde pribatuek edo publikoek emandako bekak jasotzen baldin badira, aitortu egin behar dira, baldin eta goi mailako ikasketak egiteko edo ikasketei lotutako gastuak ordaintzeko jaso badira (matrikula, garraioa edo egoitza ordaintzeko). Horrela, dirulaguntzen zenbatekoak azalpen horiengatik eskatzaileak ordain beharreko benetako kostua gainditzen ez duela egiaztatuko da.

Unibertsitate-ikasketak eta goi-mailako beste ikasketa batzuk egiteko bekak eta master ofiziala egiten ari diren ikertzaileentzako bekak bateraezina dira, edozein erakundek emanda ere.

Unibertsitateko edo goi-mailako ikasketak egiteko eskuratutako laguntza guztien zenbatekoak ezingo du gainditu ikasketen kostu erreala.

Unibertsitate berean edo beste batean beste ikasketa batzuk aldi berean egiten dituen arren, ikasle batek ere ezin izango du Eusko Jaurlaritzaren beka bat baino gehiago jaso.

2.– Unibertsitateko eta goi-mailako ikasketak egiteko beka bateragarria da EAEko ikastegietara joan behar duten eta mugitzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleentzako garraiorako bekarekin. Nolanahi ere, garraio-laguntza guztien zenbatekoa ezin da izan garraio-gastuaren % 100 baino handiagoa. Hala gertatzen bada, laguntza murriztuko da, dagokion gehienezko mugaraino.

#### 12. artikulua.– Bekadun izateko egoeraren iraupena.

1.– Orokorrean, ikasketa-planean ezarritakoa baino urtebete gehiago izan ahal izango da bekadun. Nolanahi ere, Ingeniaritza edo Arkitekturaren adarreko ikasketen kasuan, epe hori urte bikoia izango da, eta master ofizialeko ikasketen kasuan, zenbat urte izan ikasketa-planak, bakarrik urte horietan izan ahal izango da bekadun.

2.– Dena den, eskatzaileak ikasketa erdipresentzialak, lineako laguntzarekin batera, egiten baditu, aurreko zenbakian araututakoa baino urtebete gehiagoz jaso ahalko du beka, betiere matrikula partzialaren aukera egin badute.

3.– % 65eko desgaitasuna edo handiagoa duten bekadunek ikastordu gutxiago izatea aukeratzaren badute, dagokion ikasketa-planean ezarritako denboraren halako bi aldiz izan ahalko dute beka, salbu Ingeniaritza eta Arkitekturaren adarreko irakaskuntzen kasuan; halakoetan, epe hori

lau urte gehiagokoa izango da, eta masterreko ikasketen kasuan, berriz, ikasketa-planean zenbat urte ezarri, halako bitan izan ahal izango da bekadun.

4.– Unibertsitateko edo goi-mailako ikasketak egin eta ikasketa horiek egitearren beka jasotzen duten eskatzaileek ezingo dute bekarik jaso unibertsitateko edo goi-mailako ikasketak aldatzen badituzte. Bekarik jasotzeko, kontuan izan beharko da zenbat ikasturtetan jaso zuten unibertsitateko edo goi-mailako aurreko ikasketetan beka, eta ikasketa berrietan kopuru hori gainditu beharko dute, beka jaso ahal izateko.

Salbuespen gisa, unibertsitateko ikasketen lehenengo urtean beka jaso eta ikasketak lehenengo ikasturtean lehenengo aldiz aldatzen dituztenek beka jaso ahaliko dute beste ikasketetan, baldin eta 26.2 artikuluan ezarritako errendimendu akademikoari buruzko betekizunak betetzen badituzte.

5.– Master ofizialeko ikasketak eginda dituzten beka-eskatzaileek ezin izango dute beste bekarik jaso beste master ofizial bateko ikasketak egiteko, baldin eta lehenengoagatik bekarik jaso bazuten.

#### IV. KAPITULUA

##### BIZIKIDETZA- EDO FAMILIA-UNITATEAREN DIRU-SARRERAK KALKULATZEA

13. artikulua.– Bizikidetza- edo familia-unitatearen diru-sarrerak egiaztatzeko betebeharra.

1.– Elkarbizitza-unitateko kide guztiek 2020. urtean izan dituzten diru-sarrera, ondare eta bizitzeko bitarteko guztiei buruzko datuak aurkeztu eta egiaztatu beharko dituzte eskatzaileek. Datu horiek guztiak Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergaren aitopenean agertzen badira, ez dute inolako dokumentazio egiaztagarriarik aurkeztu beharko, Zerga Administrazioan zuzenean egingo baita kontsulta.

Aipatutako zergaren ondorioetarako eskabidean jasotako datuak edota zerga hori alde batera utzita deklaraturakoak elkarbizitza-unitateari, Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren edo aipatutako urtean erroldatuta egon zen autonomia erkidegoaren dirulaguntza baliokidearen erregulatzearen arabera, zegokiokoen zenbatekoa baino txikiagoak badira, eskaera egin ez izanaren edo ezetz esan izanaren arrazoia justifikatu beharko du eskatzaileak, baita urte horretan bizitzeko izan zituen bitartekoak (Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren eta SEPEren laguntzak eta zegoekiokoen udal, foru edo probintzia mailako beste laguntza guztiak) egiaztatu ere.

2.– Eskatzailea da eskabidean ematen duen informazio ekonomiko guztiaren arduraduna, eta eskatzen bazaio, eskuragarri dauden elkarreragingarritasun-zerbitzuei egindako kontsultan ezin izan delako daturik lortu, legez behartuta dago bizikidetza- edo familia-unitatearen diru-sarrera guztiak egiaztatzeko agiriak aurkeztera. Eskatu den laguntza ukatu ahal izango da, baldin eta bizikidetza- edo familia-unitatearen bizi-baliabide guztiak egiaztatzeko agiriak aztertuta, Administrazioak uste badu egiaztatu diren diru-sarrerak bizikidetza- edo familia-unitatearen gastuak baino txikiagoak direla, aurkeztu den informazioaren edo kanpoko datu batzuen arabera.

Adierazitako guztizko diru-sarrerak, senideen edo beste pertsona batzuen maileguak edo laguntzak kontuan hartu gabe, ikasketen ondoriozko gastuak, matrikula eta ohiko helbidetik at bizi behar izatea zehatzago esanda, baino txikiagoak badira, ez da beka inoiz emango.

3.– Kasu konkretu bakoitzean gertatzen diren zirkunstantziengatik, beka edo dirulaguntza emateko behar diren betekizunetan iruzurra izan dela ikusi ahal izango da, baita beka ez ematea

eragingo zuten zirkunstantziak ezkutatu direla ere. Kasu horietan, bidezkoa denaren arabera, eskatutako beka edo laguntza ukatuko da, hura emateko ebazpena aldatuko da edo itzultzea erabakiko da.

4.– Eskaeran errenta-iturriak ezkutatzek, norberaren konturako lanak edo soldatapekoak, pentsioak, lanbide liberaletan aritzea, nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiategiak, industria- edo merkataritza-ustiategiak, kapital higigarria, finkak, ibilgailuak, aparatuak edo beste ondare-elementu batzuk esate baterako, eskatutako beka edo dirulaguntza ez ematea eragingo du, egin litezkeen beste jardueren kalterik gabe.

5.– Eskatzaileek senideren batek edo familiarekiko loturarik ez duen beste pertsona batek unibertsitatearen gastuak bere gain hartzen dituela alegatzen badute eta, ondorioz, gastuen mailari begira diru-sarrerak ez direla behar bezala justifikatzen Administrazioak uste badu, zirkunstantzia hori egiaztatu beharko dute eskatzaileek eta, horretarako, dohaintza tokian-tokiko foru-ogasunean behar bezala erregistratuta izan dela justifikatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko dute. Egiaztagiriren gisa ez dira banku-transferentziak onartuko.

Zenbateko hori behar bezala justifikatzen bada, elkarbizitza/familia-unitatearen diru-sarrerei gehituko zaie, betiere 1. puntuan adierazitako betetzen bada.

6.– Administrazioak uste badu diru-sarrerak ez direla behar bezala justifikatzen gastu-mailari dagokionez, eta errenta-aitorpenean jaso gabeko beste diru-sarrera batzuk justifikatzen badira, erregularrak ez direnak edo bizikidetzta-unitateko edozein kidek salbuespenez lortutakoak, familia-unitatearen ezohiko diru-sarrera gisa zenbatuko da zenbateko hori. Zenbateko hori 60 hilabetez (5 urte) zatituko da, eta emaitza 12 hilabetez biderkatuko da dagokion zerga-ekitaldiko bizikidetzta-unitatearen diru-sarreratzat hartzeko.

Ondorio horietarako, ezohiko sarreratzat hartuko dira inbertsio-funtsak, akzioak, aurrezki-kontuak, BGAEak, ondarea saltzeagatik sortutako eta ohiko etxebizitzan inbertitu gabeko baliabideak, jaraunspenak eta legatuak, dohaintzak eta antzeko beste batzuk.

14. artikulua.– Ohiko bizilekua, bizikidetzta- edo familia-unitatea, kide konputagarriak eta ekonomia-sostengatzaile nagusiak.

1.– Ohiko bizilekutzat hartuko da errolda kolektiboan jaso dena, eta eskatzaileak errolda horretako kide izan behar du.

2.– Bizikidetzta- edo familia-unitatea osatzen dute errolda kolektiboan jasota dauden pertsona guztiek, eta eskatzaileak ere errolda horretan egon beharko du 2020ko abenduaren 31n.

3.– Eskatzaileak eskabidean adierazi behar du ohiko bizilekuan norekin bizi den, zer bizikidetzta- edo familia-unitatea den zehaztu ahal izateko, 15. artikuluan zehaztatuko moten artean, eta hori kontuan hartuko da beka emateko. Gurasoei dagokienez, 15.4 artikuluan zehaztutakoa kontuan hartuko da.

4.– Oro har, kide konputagarritzat hartuko dira 2020ko abenduaren 31n, errolda kolektiboan jasota dagoen bezala, eskatzailearekin bizi diren pertsonak, 15. artikuluan zehaztutakoa bete badute. Bizikidetzta- edo familia-unitate hori osatzen duten kide konputagarriek egiaztatu behar dute diru-sarrerarik edo ondare-baliabiderik duten, eta zenbatekoa den. Horren xedea da bizikidetzta- edo familia-unitatearen errenta-maila kalkulatzeko, bai eta ekonomia- eta ondare-eskakizunak bete diren egiaztatzea ere.

5.– Honako hauek dira ekonomia-sostengatzaile nagusiak:

a) Eskatzailea.

b) Aita edo/eta ama, 15.1 artikuluan deskribatutako bizikidetz- edo familia-unitateetan.

c) Eskatzailearen aita edota amaren ezkontidea edo bizi den bikotea, familia-unitatearen sostengatzaile ekonomiko nagusi bakarra bada 15.1 artikuluan azaldutako elkarbizitza- /familia-unitateen kasuan.

d) Eskatzailearen ezkontidea edo bikotekidea, 15.2 artikuluan deskribatutako bizikidetz- edo familia-unitateetan.

e) Aparteko zirkunstantziengatik eskatzaileari harrera ematen dioten beste senide edo familia-loturarik gabeko beste pertsona batzuk.

6.– Ez da onartuko Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta dauden eskatzaile ez independenteen beka-eskaerarik, haien bizikidetz- edo familia-unitateek eta sostengu ekonomikoa ematen dieten pertsona nagusiek ezin badute egiaztatu erkidego horretan bizi direla.

15. artikulua.– Nor diren kide konputagarriak.

1.– Eskatzailea ez bada ekonomikoki independentea eta bizikidetz- edo familia-unitate batean bizi den semea edo alaba bada, edo harreran edo tutoretzapean dagoen pertsona bezala, honako kide hauek izango dira kide konputagarriak bekaren ondorioetarako:

a) Eskatzailea.

b) Aita eta ama, legez bananduta edo dibortziatuta ez baldin badaude, artikulua honen 4. atalean ezarritakoa izan ezik.

Edo guraso bakar bat, gurasotzat legez aitortutako pertsona bakarra badago edo bietako bat hil bada.

c) Hogeita bost urtetik beherako neba-arreba ezkongabeak 2020ko abenduaren 31n (neba-arrebek ahalmen urritasun fisikoa, psikikoa edo sensoriala badute, hogeita bost urtetik gorakoak izan daitezke), ohiko bizilekuan bizi direnak.

d) Gurasoen aurreko ahaideak, baldin eta bizileku berean bizi badira.

e) Foru-araudian onartutako harrera-egoera batean dauden pertsonak; eta inguruabar hori behar bezala alegatu eta egiaztatu beharko da.

f) Eskatzailearen aitaren edo amaren ezkontide berria edo izatezko bikotekide edo antzeko bikotekide berria, ohiko bizilekuan bizi dena.

g) Eskatzailearekin helbidean bizi den pertsona, ahaidetasun-harremanik ez badago eta ezin bada etxebizitza bat era partekatuan alokatzea justifikatu.

h) Aparteko zirkunstantziengatik eskatzaileari harrera ematen dioten beste senide edo familia-loturarik gabeko beste pertsona batzuk.

Beka edo laguntzaren eskatzailea harrera-egoeran dagoen adingabea bada, harrera-familiari aurreko paragrafoetan xedatutakoa aplikatuko zaio. Adin nagusikoa denean, familia-unitatean integratu gabekotzat joko da ondorio horietarako, betiere harrerako familiarekin integratzeko inguruabarrek irauten ez badute eta behar bezala egiaztatzen bada.

Kasu hauetan guztietan, haien errenta eta ondarea ere kontuan hartuko dira, 18.2 artikuluan zehaztutako diru-sarreraren kenkaria aplikatuko da.

Salbuespen gisa, kide konputagarritzat jo ahal izango dira eskatzailearekin bizi diren beste senide batzuk, eskatzailea zurtza baldin bada, eta, betiere, eskatzaileak behar bezala egiaztatzen badu ekonomikoki haien mende dagoela eta 2020. urtean ez zuela beste sostengatzailerik izan. Hala denean, 18.2 artikuluan zehaztutako diru-sarreraren kenkaria aplikatuko da.

2.– Eskatzailea jatorrizko familiarik banandu bada, eta bere bizikidetzan edo familia-unitatean osatu baldin badu, eta unitate berri horretan bere ohiko bizilekua baldin badauka, honako hauek izango dira kide konputagarriak, bekaren ondorioetarako:

a) Eskatzailea.

b) Bere ezkontidea, izatezko bikotekidea, erregistratua zein ez.

c) 25 urtetik beherako seme-alabak (seme-alabek ahalmen urritasun fisikoa, psikikoa edo sensoriala badute, hogeita bost urtetik gorakoak izan daitezke, gurasoen mende bizi badira).

d) Foru-araudian onartutako harrera-egoera batean dauden pertsonak; eta inguruabar hori behar bezala alegatu eta egiaztatu beharko da.

e) Eskatzailearen ahaideak, edo beraren ezkontide edo izatezko bikotekidearenak, ohiko bizilekuan bizi badira.

f) Eskatzailearekin bizileku berean bizi den pertsona, nahiz eta haien artean ez izan ahaide-tasun-harremanik, eta alokatutako etxebizitza partekatzen dutela egiaztatzea ezinezkoa izan.

3.– Eskatzailea bere gurasoen etxetik irten bada edo zurtza baldin bada, pertsona bateko unitate bat osatuko du. Independentea dela jo ahal izateko, honela ziurtatu beharko du ekonomikoki independentea dela eta gurasoen etxetik irten dela:

a) Gurasoen etxetik irten dela egiaztatzeko, eskatzaileak bere bizilekuan, eta ez gurasoen etxean, errolatua egon beharko du (erositako edo alokatutako etxebizitza batean, edo pisu partekatutako batean; eta bizileku hori, odolkidetasunaren 4. mailara eta ahaidetasunaren 2. mailara arteko senide batena ezin da izan).

Edo, hala dagokionean, zurtza dela egiaztatzeko agiria.

b) Ekonomikoki independente dela egiaztatu beharko du, gastuak (janaria, arropa, etxebizitza, garraioa) ordaintzeko behar beste ekonomia-baliabide dituela ziurtatuz. Ondorio horietarako, eskatzailearen baliabide ekonomikoak kalkulatzeko, beraren diru-sarrerak batuko dira, ohiko bizilekuan bizi den beste pertsona batenak ez dira kontuan hartuko. Diru-sarrerak 1. mugaren parekoak edo txikiagoak baldin badira, pertsona horrek Lanbideak kudeatutako diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako dirulaguntza osagarria eskatu ahaliko ditu, bai eta beste laguntza batzuk ere. Hortaz, dirulaguntza horiek eskatu dituela eta zer egoeratan dauden egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko ditu. Diru-gastuak ordaintzeko beste diru-sarrera dagoela egiaztatzeko xedez, honako hauek aztertuko dira:

– Eskatzaileak aurkeztu dituen diru-sarreraren eta gastuen arteko balantzea, hori ziurtatzeko agiriarekin batera (Administrazioak beharrezkotzat jotzen dituen dokumentu guztiak eskatu ahal ditu).

– Zerga-egiaztagiria, gurasoek berarengatik ez dutela zerga-kenkaririk egiten berresteko.

Eskatzaile bat ekonomikoki independente dela jo ahal izateko, gurasoek edo lege-tutoreek ezin dute eskatzaileari lotutako zerga-kenkaririk egin PFEZaren aitortzen-likidazioan.

Eskatzaileak emantzipazio-programa baten laguntza jasotzen badu, eta horretan janaria eta ostatua sartuta baldin badaude, familiako independentzia betetzetik salbuetsita egongo da, baina, independentzia ekonomikoari lotutako agiriak aurkeztu beharko ditu.

Familia-independentzia eta independentzia ekonomikoaren betekizuna bete ezean, elkarbizitza-unitatean gurasoak sartuko dira, eskatzailearekin batera erroldatuta egon ez arren. Hala egiten ez badute, ezetsi egingo da eskaera, independentzia ez egiaztatzeagatik, hala ba dagokio.

4.– Gurasoek bizikidetzan- edo familia-unitateari egiten dizkioten diru-ekarpenak aldatuko dira, 2020ko abenduaren 31n haien artean duten lotura zein den, betiere erroldarekin eta dibortzioari buruzko sententziarekin edota hitzarmen arautzailearekin egiaztatzen bada.

a) Ezkonduta edo izatezko bikotekide gisa erregistratuta badaude, bizikidetzan- edo familia-unitateko beste kide bat dela joko da.

b) Ezkonduta edo izatezko bikotekide gisa erregistratuta ez badaude, baina bizileku berean bizi badira, bizikidetzan- edo familia-unitateko beste kide bat dela joko da.

c) Ezkontideak edo izatezko bikotekideak banandu baldin badira eta gurasoetako bat ez bada ohiko bizilekuan bizi, honako arau hauek aplikatuko dira:

– Hitzarmen arautzailean mantenu- edota orekatze-pentsio bat ezarri bada, zenbateko hori elkarbizitza-unitatearen diru-sarrerara gisa zenbatuko da, betiere aparteko gastuak beteta daudela argi geratzen bada. Horretarako, matrikularen gastua gehi egoitzarena baino handiagoa izan beharko da, gutxienez, pentsioak. Gutxieneko baldintza hori betetzen ez bada, kanpoko gurasoa % 50ean zenbatuko da.

– Hitzarmen arautzailean aparteko gastuak bi gurasoek % 50ean ordaindu behar dituztela ezarri bada, kanpoko gurasoa zenbatzeko moduko elkarbizitza-/familia-unitateko kideei gehituko zaie eta ez da mantenu-pentsioa konputatuko. Kasu horretan, % 50eko dedukzio bat aplikatuko da, errentari eta ondareari, 18.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

– Hitzarmen arautzailea ez badago, edo egon arren mantenu-pentsioa ezartzen ez badu, gurasoa zenbatzeko moduko elkarbizitza-unitateko kideei gehituko zaie. Kasu horretan, % 50eko dedukzio bat aplikatuko da, errentari eta ondareari, 18.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

d) Zaintza partekatua kasu guztietan, bi gurasoak % 100ean zenbatzeko moduko kide gisa sartuko dira elkarbizitza-unitatean.

e) Eskatzailearen gurasoek ez badute, ezkontzarenagatik edo izatezko bikoteen erregistroan egoteagatik, inolako harremanik eta bietako bat eskatzailearen ohiko helbidetik at bizi bada, elkarbizitza-unitatearen zenbatzeko moduko kideei gehituko zaie. Kasu horretan % 50eko dedukzio bat aplikatuko da, errentari eta ondareari, 18.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

f) Aurreko kasu guztietan gaurko data duen demanda judiziala, laguntza ekonomikoa erreklamatzeko duena, edo horri buruzko ebazpen judiziala egotea da mantenu-pentsioa edo kanpoko gurasoa ez konputatzeko salbuespen bakarra.

g) 4.c eta d puntuan adierazitako kasu guztietan, sustengatzaile ekonomiko nagusia, eskatzailearen helbide berean bizitzeagatik, den gurasoak diru-sarrerak ez baditu, % 100ean konputatuko

zaio kanpoko gurasoari eta ez du 18.2 artikuluan aipatzen den dedukzioa jasotzeko eskubiderik izango.

Halaber, dibortzio edo banantzearen kasuan, matrikularen zenbatekoa eskatzailearekin batera erroldatuta dagoenaren zenbatzeko moduko banakako errenta baino handiagoa bada, kanpoko gurasoari % 100ean konputatuko zaio, bai errentari, bai ondareari begira.

Kanpoko gurasoa bizikidetza-unitatean zenbatzen denean, ondasun higiezinaren zenbaketatik kenduko dira bi gurasoen ohiko bizilekuak, erroldan egiaztatutakoak.

16. artikulua.– Bizikidetza- edo familia-unitatearen errenta-mugak.

1.– 2021-2022 ikasturtean unibertsitateko edo goi-mailako ikasketak egiteko emango diren beka bizikidetza- edo familia-unitatearen errenta-maila arabera izango dira. Hona hemen mugak:

Kide konputagarriak	1. muga (euroak)	2. muga (euroak)	3. muga (euroak)
1	8.871	13.236	14.826
2	13.306	22.594	25.308
3	17.742	30.668	34.352
4	22.177	36.421	40.796
5	25.726	40.708	45.598
6	29.274	43.945	49.224
7	32.822	47.146	52.810
8	36.371	50.333	56.380

Beste kide konputagarri bat gehituz gero, honako kopuruak gehituko dira:

Beste kide konputagarri bat gehituz gero	1. muga (euroak)	2. muga (euroak)	3. muga (euroak)
	3.235	3.672	3.562

2.– Beka-eskaera ukatu egingo da, bizikidetza- edo familia-unitatearen errentak unitate hori osatzen duten kide konputagarrientzat 3. mailan ezarrita dauden kopuruak gainditzen baditu.

17. artikulua.– Bizikidetza- edo familia-unitatearen errenta kalkulatzea.

1.– Bizikidetza- edo familia-unitatearen zenbateteko, artikulua honetan ezarritakoa aplikatuko zaio familia-unitateko kide konputagarri bakoitzari; hain zuzen ere, 14. eta 15. artikuluan ezarritakoaren arabera kide konputagarriak diren familia-kideei.

2.– Bekaren ondorioetarako, honela zenbatetsiko da PFEZ aitortpena aurkeztu duten kide konputagarrien errenta:

a) 2020ko PFEZ aitortpeneko bi zenbateko batu behar dira: zerga-oinarri orokorrarena eta aurrezpenaren zerga-oinarriarena. Zerga-oinarri orokor osoak edo zati batek jarduera ekonomikoaren etekinak baditu, eta etekin horiek zeinu negatiboa badute, emaitza zero izango da. Gainerako zenbatekoari kuota likidoa kenduko zaio.

b) Hartzaileak, gainera, PFEZren pean ez dauden edo PFEZtik salbuetsitakorik dauden diru-sarrerarik jaso baditu, diru-sarrera horien zenbatekoa gehitu egingo zaio aurreko formularekin ateratako emaitzari.

3.– Bekaren ondorioetarako, honela zenbatetsiko da PFEZ aitortpena aurkeztu ez duten kide konputagarrien errenta:

a) 2020an edozein azalpen dela-eta lortutako diru-sarrera guztiak batuko dira (lan-etekina, lan-gabezia-prestazioak eta -laguntzak, pentsioak, gizarte-laguntzak, salbuetsitako errentak...), baita hiri-izaerako ondasunen etekina ere, PFEZren ondorioetarako konputagarria dena, aplikatzeko den zerga-araudiari jarraikiz. Ondasun horietan ez da sartzen ohiko etxebizitza.

b) Konturako atxikipenak eta aplikatzekoak diren gastu kengarriak (Gizarte Segurantzaren, etab.) kendu behar zaizkio emaitza horri.

4.– Ez da diru-sarreratzat hartuko administrazio publikoek emandako ikasketa-beken edo laguntzen zenbatekoa.

5.– Salbuespen gisa, 2021ean COVID-19k eragindako osasun-krisiak familiaren egoera ekonomikoa larriki kaltetu duen eskatzaileen kasuan, eta beka-eskaera ukatu zaien kasuan, 2020ko ekitaldiko diru-sarrerak konputatzean errenta-atalasea gainditzeagatik, zenbatutako errenta osoaren % 5eko kenkaria izateko eskubidea izango dute.

Horretarako, egiaztatu beharko da bizikidetzaren unitatearen sostengatzaile ekonomiko nagusiak COVID-19 kodearen eraginpean egon direla lanean, eta justifikatu beharko da langabezia-egoera, ERTE, enplegu-erregulazioko espedientea edo jarduera-itxiera (autonomoen kasuan) 2021. urtean zehar gertatu dela eta gutxieneko iraupena 3 hilabetekoa izan dela.

18. artikulua.– Bizikidetzaren edo familia-unitatearen errentaren kenkariak.

1.– Guraso bakarreko familiakoa izateagatik aplikatuko den kenkaria:

Deialdi honen ondorioetarako, guraso bakarreko familia horrela definitzen da: guraso, tutore edo harrera egiten duen pertsona bakarra dagoen hori. Zirkunstantzia hori familia-liburuaren edo tutoretza edo harrera ezartzen duen agiri ofizialaren bidez egiaztatu beharko da.

Lortutako bizikidetzaren edo familia-unitatearen errentari ehuneko hamarreko kenkaria besterik ez zaio aplikatuko, baldin eta eskatzailea guraso bakarreko familiakoa bada, honako egoera haue-tako batean badago:

a) Eskatzailea guraso bakarreko semea edo alaba da, eta familia-unitateak diru-iturri bakarra du: hain zuzen ere, aitak edo amak besteren kontura egiten duen lana edo/eta jasotzen duen pentsioa (ezintasun-pentsioa, alargun-pentsioa, zurtasun-pentsioa, konpentsazio-pentsioa edo/eta janari-pentsioa). Eskatzailearen edo anaia-arrebaren baten diru-sarrerak badaude, diru-sarreraren kenketa aplikatzen jarraituko da, betiere diru-sarrerak dituzten kide horietako bakoitzeko lortutako guztizko zenbatekoa urtean 2.000 eurotik beherakoa bada.

b) Eskatzailea guraso bakarreko familia baten aita edo ama da, eta diru-iturri bakarra besteren kontura egiten duen lana edo/eta jasotzen duen pentsioa da (ezintasun-pentsioa, alargun-pentsioa, zurtasun-pentsioa, konpentsazio-pentsioa edo/eta janari-pentsioa); eta ez da seme-alabarik ez den beste pertsona batekin bizi.

Azken puntu honetan, errentari kenkari hori aplikatzeko, behar-beharrezkoa da familia-errentan janari-pentsioaren edo/eta konpentsazio-pentsioaren zenbateko eguneratua sartzea, edo behar bezala egiaztatzea ez dagokiela kobratzea.

c) Eskatzailea erabat umezurtza da eta 25 urte baino gutxiago du.

2.– Sostengatzaile nagusiak ez diren kide konputagarrien diru-sarreraren gaineko kenkariak:

Bizikidetza- edo familia-unitateko kide konputagarri bakoitzaren errenta zenbatetsiari ehuneko berrogeita hamarra kenduko zaio, kide horrek diru-sarrerak baditu eta sostengatzaile nagusia ez bada, eskatzailearen aitaren edo amaren bikote edo ezkontide berriaren kasuan izan ezik, familia-unitatearen sostengatzaile ekonomiko bakarra bada.

3.– Familia ugarikoa izateagatik aplikatuko den kenkaria:

Ohiko bizilekuan bizi den neba-arreba bakoitzeko, eskatzailea barne hartuta, bizikidetza- edo familia-unitatearen errentaren gaineko kenkari bat, 525 eurokoa, egingo da, kategoria orokorreko familia ugaria denean; eta 800 eurokoa, kategoria bereziko familia ugarikoa bada.

Ohiko bizilekuan bizi den eskatzailearen seme-alaba bakoitzeko, bizikidetza- edo familia-unitatearen errentaren gaineko kenkari bat, 525 eurokoa, egingo da, kategoria orokorreko familia ugaria denean; eta 800 eurokoa, kategoria bereziko familia ugarikoa bada.

Beharrezkoa izango da familia ugariaren titulua indarrean egotea eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean. Ondorio hauetarako, eskabideak aurkezteko amaiera-data 33. artikuluko 1. puntuan adierazitakoa izango da.

4.– Desgaitasunen bat duen kide konputagarri bakoitzarengatik aplikatuko den kenkaria:

Bizikidetza- edo familia-unitatearen errentari kenkari bat aplikatu ahalgo zaio minusbaliota-suna legez aitortua den kide konputagarri bakoitzarengatik. Kenkaria 1.811 eurokoa izango da ahalmen-urritasuna % 33koa edo handiagoa bada eta % 65koa baina txikiagoa bada, edonor dela ere kide konputagarria. Desgaitasuna % 65koa edo handiagoa bada, kenkaria 4.000 eurokoa izango da, baldin eta eskatzaileak badu desgaitasun hori; kenkaria 2.881 eurokoa izango da, baldin eta beste kide konputagarri batek badu desgaitasun hori. Kenkari hori aplikatzeko, eskabideak aurkezteko epea amaitzerakoan desgaitasun horrek jarraitzen duela egiaztatu behar da.

Gizarte Segurantzako pentsiodunek, elbarritasun erabatekoan, absolutuan edo handian ezintasun iraunkorraren pentsio bat badute, eta klase pasiboetako pentsiodunek zerbitzurako ezintasun iraunkorrarengatik edo desgaitasunarengatik erretiro-pentsio bat badute, % 33ko edo % 33tik gorako elbarritasuna izango dute, azaroaren 29ko 1/2013 Errege Lege Dekretuak, Elbarritasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Lege Orokorrak, 4.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

5.– Unibertsitate- edo goi mailako beste ikasketa batzuk egiten dituen eta beka eskatu duen anaia /arreba bakoitzeko dedukzioa.

Eskatzailea izan ezik, 1.176 euroko dedukzioa egingo da 2021-2022ko ikasturtean unibertsitate- edo goi mailako beste ikasketa batzuk egiten dituen eta beka eskatu duen anaia-arreba bakoitzeko. Dedukzio hori aplikatu ahal izateko, zirkunstantzia hau eskaeran horretarako dagoen atalean adierazi beharko da.

19. artikulua.– Ondare-ondasunen mugak eta haiengatik aplikatzen den kenkaria.

1.– Eskatutako beka ukatu ahal izango da, baldin eta, familia-errenta edozein delarik ere, 2020ko abenduaren 31n familia-unitateko kide konputagarrien ondasunen balioak edo/eta etekinek gainditu egiten badituzte honako muga hauek:

a) Hiri-finkak direnean, honako bi muga hauek ezin dira gainditu:

– Ohiko bizilekua eta trastelekua alde batera utzita, bizikidetza- edo familia-unitateko kide konputagarrien jabetzako hiri-finken katastroko balioen batuketara ezin da 42.900 eurotik gorakoa izan.

Gehienezko katastro-balioaren ondorioetarako, ez dira sostengatzaile ekonomiko nagusien diru-sarreraren iturria den norberaren konturako jarduera ekonomikoa egiten den erakinak kontuan hartuko. Salbuespen hau aplikatu ahal izateko, jarduera ekonomikoak 2020ko zerga-ekitaldian eraikin horretan helbideratuta dagoela egiaztatu beharko da.

– Bizikidetzaren edo familia-unitateko kide konputagarrien jabetzako etxebizitzaren gehienezko kopurua, ohiko bizilekua barne, ezin da bi etxebizitza baino handiagoa izan. Zifra hori zenbaitesteko, kide konputagarrien jabetzakoak izan daitezkeen etxebizitzetako titulartasun-ehunekoak batuko dira. Ez dira etxebizitzat hartuko 5.000 eurotik beherako katastro-balioa duten higiezinak, baina kontuan hartuko dira katastroko balioen baturaren ondorioetarako.

Puntu honetan jasotako bi mugetan ez dira kontuan hartuko jabetza soileko ondasun higiezinak, gozamina bizikidetzaren unitateetik kanpoko pertsona bati baitagokio. Egoera hori Jabetza Erregistroko ohar simple batekin egiaztatu beharko da, egungo datakoa. Halaber, aitona-amonen bat bizikidetzaren unitateko kide konputagarria bada, zenbaketatik jabetzako etxebizitza bat kenduko da.

b) 2020ko zerga-ekitaldiko higigarrien kapitalaren etekin garbia gehi ondareen irabazi eta galera garbieraren arteko aldearen baturak, familiako kide konputagarriena, ezingo du 1.700 euroko muga gainditu, bizikidetzaren unitatearen errenta garbiak 16. artikuluan zehaztutako 1. muga gainditzen ez duen kasuetan izan ezik.

Batuketa horretan ez dira sartuko ohiko etxebizitza erosteko edo konpontzeko jasotako diru-laguntzak, ez eta emantzipatzeko oinarriko errenta eta joko, lehiaketa, zozketa edo ausazko konbinazioetan parte hartzeagatik lortutako diruzko edo gauzazko sarien zenbatekoa 1.500 eurora arte. Sari horien ondoriozko ondare-irabaziak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudiaren arabera zuzenduko dira.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko udalerritan dauden hiri-higiezinaren katastroko balioa zenbaitesteko, honako arau hauek aplikatuko dira:

Higiezinak Bizkaiko, Gipuzkoako edo Arabako edozein udalerritan badago, katastroko balioa 0,36z biderkatuz ateratzen dena izango da.

3.– Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo dauden hiri-finken katastroko balioa zenbaitesteko, honako arau hauek aplikatuko dira:

Katastroko azken berrikuspenaren data eraginkorra 1990eko urtarrilaren 1etik 2002ko abenduaren 31ra artekoa baldin bada, katastroko balioak 0,49 koefizienteaz biderkatuko dira. Berrikuspen horren eguna 2002ko abenduaren 31ren ostekoa baldin bada, honako koefiziente hauek erabiliko dira, katastroko balioak biderkatzeko:

0,43; 2003an berrikusi direnetarako.

0,37; 2004an berrikusi direnetarako.

0,30; 2005ean berrikusi direnetarako.

0,26; 2006an berrikusi direnetarako.

0,25; 2007an berrikusi direnetarako.

0,25; 2008an berrikusi direnetarako.

0,26; 2009an berrikusi direnetarako.

0,28; 2010ean berrikusi direnetarako.

0,30; 2011n berrikusi direnetarako.

0,32; 2012an berrikusi direnetarako.

0,34; 2013an berrikusi direnetarako.

0,36, 2014tik 2020ra bitartean berrikusitakoaren artean.

Nafarroako Foru Aldundiko higiezinaren katastro-balioa, edonola ere, 0,50 koefizienteaz biderkatuko da.

Eskatzaileak ziurtatu beharko du higiezinaren katastro-berrikuspena zer urtetan egin den, koefizienteak aplikatu ahal izateko.

20. artikulua.– Jarduera ekonomikoen muga.

Bizikidetzaren edo familia-unitateko kide konputagarrien jarduera ekonomikoei buruzko fakturen kopurua guztira, 2020. ekitaldikoa, ezin izango da 155.500 euro baino handiagoa izan. Enpresa txiki eta ertainei hori bera aplikatuko zaie, baldin eta titularrak merkataritza-sozietateak badira eta familia-unitateko kide konputagarrietako baten bat sozietate horren kidea edo partaidea bada eta bertan lan egiten badu. Titularrak enpresan duen titulartasun- edo partaidetza-portzentajea zenbatekoa, halako portzentajea aplikatuko zaio jarduera ekonomikoaren fakturazio-bolumenari.

Salbuespen gisa, 2021ean COVID-19k eragindako osasun-krisiak familiaren egoera ekonomikoa larriki kaltetu duen eskatzaileen kasuan, eta beka-eskaera ukatu zaien kasuan, 2020ko ekitaldia kontuan hartuta jarduera ekonomikoetarako gehieneko atalase hori gainditzeagatik, jarduera ekonomikoetatik datozen diru-sarreraren baturari % 5eko kenkaria egiteko eskubidea izango dute.

Horretarako, egiaztatu beharko da bizikidetzaren unitatearen sostengatzaile ekonomiko nagusiak COVID-19 kodearen eraginpean egon direla lanean, eta justifikatu beharko da langabezia-egoera, ERTE, enplegu-erregulazioko espedienteak edo jarduera-itxiera (autonomoen kasuan) 2021. urtean zehar gertatu dela eta gutxieneko iraupena 3 hilabetekoa izan dela.

21. artikulua.– Kenkariak ondare-elementuetan.

Atal honetan zehaztutako ondare-elementuen ehuneko berrogeita hamarra kenduko da, baldin eta bizikidetzaren edo familia-unitateko kide konputagarrienak badira, eta kide horiek sostengatzaile nagusiak ez badira, eta 18.2 artikuluan zehaztu den errenta-kenkaria jasotzeko eskubidea badute.

## V. KAPITULUA

### IKASKETA-BETEKIZUNAK

22. artikulua.– Betebehar orokorrak.

1.– 2021-2022 ikasturtean unibertsitateko edo goi-mailako ikasketak egiteko beka jasotzeko, ikasleek matrikula egin behar dute deialdi honetako 1. artikuluko ikasketaren batean, ikasturte horretan. Horrez gain, betekizun akademikoak bete behar dituzte, bai eta artikulua honetan jasotako aprobetxamendu akademikoaren betebeharrak ere.

2.– Ikasleek aldi berean hainbat ikasketa egiten badituzte, bekaren bidez egin nahi dituzten ikasketei buruzkoak izan behar dute betekizun akademikoek eta aprobetxamendu akademikoaren betekizunak.

3.– Ikasle batek ikasturte batez unibertsitateko edo goi-mailako ikasketarik egin ez badu, ezarritako betekizunak bete beharko dira maila bereko ikasketen azken mailan.

23. artikulua.– Matrikulatu behar den gutxienezko kreditu-kopurua.

Oro har, unibertsitateko eta goi-mailako ikasketak egiteko beka eskatzen dutenek gutxienezko kreditu-kopurua matrikulatu behar dute, 2021-2022 ikasturtean egiten duten ikasketa-motaren arabera:

a) Gradu ikasketak: eskatzaileek gutxienez 60 kredituko matrikula egin beharko dute.

b) Master-titulua ofiziala lortzeko ikasketak: eskatzaileek ikasturte osoko matrikula egin behar dute, ikasketa-planak urtebetea irauten badu; eta gutxienez 60 kredituko matrikula egin beharko dute, ikasketa-planak urtebetea baino gehiago irauten badu.

c) Goi-mailako arte-, erlijio- eta militar-ikasketak: eskatzaileek gutxienez 60 kredituko matrikula egin beharko dute.

d) 25 urte baino gehiagokoak unibertsitatean sartzeko prestakuntza-ikastaroak, unibertsitatean emandakoak: eskatzaileek gutxienez 35 kredituko matrikula egin behar dute. Beka ikasturte baterako soilik emango da.

24. artikulua.– Matrikulatu behar den gutxienezko kreditu-kopuruaren salbuespenak.

Aurreko artikuluan adierazitako gutxienezko iristen ez diren pertsonak lortu ahal izango dute beka, ondorengo salbuespenetakoren bat betetzen bada:

a) Exijitutako gutxienezko iristea, unibertsitatearen araudiak mugatzen baitu matrikula daitkeen kredituen kopurua:

– Goi gradua edo ikasketak: ahal den kreditu guztietan matrikulatu arren exigitutako gutxienezko iristen ez bada, unibertsitateak, zirkunstantzia akademiko desberdinengatik, ez baitio ematen kreditu gehiagotan matrikulatzeko aukerarik.

– Masterra: ikasketa-planak ikasturte honetarako kredituen kopuru txikiago bat hartzen badu edo eskatzailearen masterraren kredituak baliokidetuta edo aitortuta baditu, onartuko da, betiere matrikula 30 kreditu baino txikiagoa ez bada. Matrikula 46 kreditu baino gutxiagokoa bada, matrikularen, ikaskuntzari eta eraldaketa digitalari laguntzeari lotutako oinarriko zenbatekoaren eta hiriarteko joan-etorriei lotutako zenbateko osagarriaren osagaiak besterik ezin izango ditu lortu.

b) Ikasketak bukatzeko azken kredituak. Salbuespen hau behin bakarrik aplikatuko da.

– Goi gradua edo ikasketak: gutxienezko 60 kredituetara iristen ez bada, ikasketak bukatzeko falta zaizkion kreditu guztietan, ikasturtean amortizatuko dituen aukerakoak (oraindik amortizatu gabe egon arren) edo gradu bukaerako lana, matrikulatu delako.

– Gradu bukaerako lanean besterik ez bada matrikulatzen.

– Masterra: ikasketa horiek bukatzeko falta zaizkion kreditu guztietan matrikulatu izanagatik masterrarako exigitutako kredituen gutxienezko kopurura iristen ez denak izango du beka lortzeko aukera.

Salbuespen hau gradurako edo masterrarako aplikatzen bada, 12 kreditu baino gehiagotan, 35era arte, matrikulatzen bada, % 50 txikiagoak izango dira bekaren osagaien zenbatekoak, osorik ordainduko den matrikularen osagaia izan ezik. 12 kreditutan, edo gutxiagotan, matrikulatzen bada, matrikularen osagaia besterik ez dagokio.

c) Gradu edo masterreko ikasketak, presentziaren erdiko erregimenean eta on-line euskarriarekin:

30 kreditutan, gutxienez, matrikulatzen bada, izango du beka lortzeko aukera. 46 kreditu baino gutxiagotan matrikulatzen bada, osagai hauek lortu ahal izango ditu: matrikula, ikaskuntzari eta eraldaketa digitalari laguntzeari lotutako oinarrizko zenbatekoa eta hiriarteko joan-etorriei lotutako zenbateko osagarria.

d) Gradu edo masterrera matrikula partziala:

30 kreditutan, gutxienez, matrikulatu behar du eta ondorengo egoeretako batean dagoela justifikatu beharko du beka eskatzen duen pertsonak:

- Ikasketak eta lan-jarduera egiten ditu bateragarri.
- Lanbide Heziketako irakaskuntzak egin ditu eta kredituak baliokidetu edo ezagutzen zaizkio.
- Curriculumetik kanpoko praktiken kredituak baliokidetu edo ezagutzen zaizkio.

46 kreditu baino gutxiagotan matrikulatzen bada, ondorengo osagaiak bakarrik lortu ahal izango ditu: matrikula, ikaskuntzari eta eraldaketa digitalari laguntzeari lotutako oinarrizko zenbatekoa eta hiriarteko joan-etorriei lotutako zenbateko osagarria.

e) Eskatzaileak % 65eko edo gehiagoko elbarritasun bat badu:

% 50era arte, exijitutako gutxienekoari begira, gutxitu ahal izango ditu irakastorduak. Murrizketa hau 23. artikulua d) paragrafoan adierazitako ikasketetarako erabiltzen duenak, beka berritu ahal izango du, ikasturtean matrikulatu den kredituen % 50 gainditzen badu.

Aurrerago adierazitako salbuespen guztietan zabaldu ahal izango dira kredituak, horren berri Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritzari 2022ko martxoaren 31 baino lehenago ematen bazaio, araudi akademikoarengatik lehenago matrikulatu ezin izan den gradu bukaerako proiektuaren kredituen kasuan izan ezik; kreditu horiek ikasturteak bukatu arte zabaldu ahal izango dira.

25. artikulua.– Matrikulatu behar den gutxieneko kreditu-kopurua zenbatzea.

Matrikulatu den gutxieneko kreditu-kopurua zenbatzeko, kontuan hartu beharko dira honako arau hauek:

a) Eskatu beharreko gutxieneko kopuruan ezin izango dira sartu espezialitate bat baino gehiagoko irakasgai edo kredituak, ezta dagokion titulua eskuratzeko behar diren kopurutik gorakoak ere.

b) Baliozkotu, egokitu edo aitortu diren kredituak ez dira matrikulatutako kreditutzat joko; hortaz, ez dira batuko matrikulan hartzeko gutxieneko kreditu-kopurua betetze aldera. Ikasturte horretan amortizatuko diren hautazko irakasgaien kredituak ere ez dira aintzat hartuko.

c) Hirugarren matrikularen kredituak matrikularen gutxienezko kredituak kalkulatzearan ondorioetarako hartuko dira kontuan; ez, ordea, prezio publikoaren zenbatekoa kalkulatzeko, 3. artikulua 4. atalean jasota agertzen den legez.

26. artikulua.– Beka eskuratzeko aurreko ikasturteko errendimendu akademikoa.

1.– Beka eskuratu ahal izateko, eskatzaileek ziurtatu beharko dute aurreko ikasturtean eskatutako errendimendu edo ustiapen akademikoa gainditu dutela, 2020-2021 ikasturtean egingo diren ikasketen arabera.

a) Gradu-titulu ofiziala edo goi-mailako ikasketak:

– Lehen aldiz unibertsitateko edo goi-mailako arte-, erlijio- edo militar-ikasketetara matrikulatzen diren ikasleei ez zaie errendimendu akademikorik eskatuko.

– Unibertsitateko edo goi-mailako arte-, erlijio- edo militar-ikasketetan bigarren mailatik aurrera matrikulatzen diren ikasleei honako errendimendu hau eskatuko zaie:

– Ingeniaritza edo Arkitekturaren adarreko ikasketak: matrikulatu diren kredituen % 60.

– Zientzien ikasketak: matrikulatu diren kredituen % 65.

– Osasun Zientzien, Lege- eta Gizarte-Zientzien, eta Arte eta Giza Zientzien adarreko ikasketak: matrikulatu diren kredituen % 75.

b) Unibertsitate-masterreko titulu ofiziala lortzera bideratutako ikasketak:

– Masterreko lehen kurtsorako: beka izateko, ez da batezbesteko gutxienezko notarik exijituko.

– Master ofizial baten bigarren ikasturterako, hauxe egiaztatu beharko dute: aurreko ikasturtean matrikulatutako kreditu guztiak gainditu dituztela, eta master-ikasketak amaitzeko gelditzen zaizkien kreditu guztietan matrikulatu direla.

– Master bat presentziaren erdiko erregimenean egiten badu eta, matrikula-kredituen gutxienezko kopuruari begira, 24. artikulua c) puntuan xedatutako salbuespena izan badu, aurreko kurtsuan matrikulatu den kreditu guztiak gainditu beharko ditu ikasleak.

2.– Ikasketa-aldaketaren kasuan, aurreko ikasturtean exijitutako errendimendu edo aprobetxamendu akademikoa ondorengo arauen arabera kalkulatu da:

Eskatzaileak agindu honetan zehaztutako ikasketak egiteko aurreko ikasturtean beka jaso bazuen, ikasturte horretan lortutakoa joko da errendimendu akademikotzat, 12.4 artikulua arabera.

Eskatzaileak aurreko ikasturtean beka jaso ez bazuen, ondorengo arauen arabera kalkulatu da:

– Aurreko ikasketak lehen urtean utzi bazituen eta ikasketa berrien lehen urtea ari bada egiten: ez zaio errendimendurik eskatuko, 26.1.a) artikulua lehen paragrafoan zehazten den moduan.

– Aurreko ikasketak lehen urtean utzi bazituen eta ikasketa berrietan bigarren urtetik aurrerako ikasturteren batean badago, ikasketa berrien azken urtea hartuko da kontuan, 12.4 artikuluan zehaztutakoarekin bat etorritik.

– Aurreko ikasketak bigarren mailatik aurrerako ikasturteren batean utzi bazituen eta ikasketa berrien lehen urtea ari bada egiten, bertan behera utzitako ikasketen azken urtea hartuko da kontuan, 12.4 artikuluan zehaztutakoarekin bat etorritik.

– Aurreko ikasketak bigarren mailatik aurrerako ikasturteren batean utzi bazituen eta ikasketa berrietan bigarren urtetik aurrerako ikasturteren batean badago, ikasketa berrien azken urtea hartuko da kontuan, 12.4 artikuluan zehaztutakoarekin bat etorritik.

Aurreko ikasturteko egoera	Kontuan hartzeko errendimendua		
Aurreko ikasturtean beka jaso zuen	Aurreko ikasturteko errendimendua + 12.4		
Aurreko ikasturtean ez zuen bekarik jaso	Ikasketak lehen urtean utzi zituen	Ikasketa berrien lehen urtean dago	Ez da errendimendurik eskatzen
		Ikasketa berrien bigarren urtean (edo aurrerago) dago	Ikasketa berrien aurreko urteko errendimendua + 12.4
	Ikasketak bigarren urtean (edo aurrerago) utzi zituen	Ikasketa berrien lehen urtean dago	Ikasketa zaharren azken urteko errendimendua + 12.4
		Ikasketa berrien bigarren urtean (edo aurrerago) dago	Ikasketa berrien aurreko urteko errendimendua + 12.4

Irakaskuntza berberetako plan berrietara egokitzeko prozesuak ez dira ikasketa-aldaketatzat joko.

27. artikulua.– Aurreko ikasturtean exijitutako errendimendu akademikoari aplikatzeko moduko salbuespenak.

Salbuespen gisa, eskatzaileak errendimendu akademikoko betekizunetik salbuetsita egongo dira, baldin eta ikasturte horretan osasun-arazo edo segurtasun-arazo larriak izan badituzte, eta arazo horiek direla-eta, ikasketak normaltasunez egitea ezinezkoa izan bada. Arazo horiek ziurtatzeko, honako aukera hauetako bat hautatu beharko da: osasun-arazoen kasuetan, Osasun Publikoaren Sareko medikuak, gaixotasun horren arloko espezialistak, igorritako mediku-txosten ofiziala, eta ebazpen judiziala, uneko prozesu judizialaren ziurtagiria edo Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen txosten ofiziala.

28. artikulua.– Errendimendu akademikoa aprobetxamendu akademikoari lotutako oinarrizko zenbatekoa lortzeko.

Aprobetxamendu akademikoari lotutako osagaia lortzeko, 6. artikuluan zehaztutakoarekin batera, eskatzaileek honako errendimendu akademiko hau ziurtatu beharko dute, egin nahi dituzten ikasketak zeintzuk diren:

a) Gradu-ikasketetan edo goi mailako beste ikasketa batzuetan lehenengo aldiz matrikulatzen diren ikasleek ondoren datorren taulan jasotako batez bestekoa lortua behar izango dute. Hori izango da unibertsitatean sartzeko nota, zeina selektibitatean espezifikoa kontuan hartu gabe ateratako nota baita. Unibertsitatera sartzeko probatik ez datozenek ere nota berberak atera dituztela egiaztatu beharko dute.

b) Unibertsitateko edo goi-mailako ikasketetako bigarren mailan edo hurrengoetan matrikula egiten duten ikasleek aurreko mailan (unibertsitatea edo goi-mailan) matrikulan hartu zituzten kreditu guztiak gaindituta izan behar dituzte, eta ondorengo taulan eskatutako batez besteko nota izan beharko du.

Graduko 1.a Sarrera-nota	Graduko 2.etik aurrera Aurreko kurtsoko batez besteko nota	Osagaiaren kopurua (euroak)
	6,50 - 6,99	100
	7,00 - 7,49	125
	7,50 - 7,99	150
	8,00 - 8,49	175
	8,50 - 8,99	200
	9,00 - 9,49	225
	9,50 - 10	250

Osagai hau zenbatesteko kontuan hartu beharreko batez besteko nota unibertsitateko edo goi-mailako ikasketa-espeditentean jasotakoa izango da. 6.4 artikuluan ezartzen den bezala Osa-gaiaren kopurua bikoiztu egingo da 1. muga dauden pertsonentzat.

– Ikasketa-espeditentearen ziurtagirian batez besteko nota, zenbakiko kalifikazioen bidez kalkulatu, jasota ez badago, honako hau izango da kalifikazioak zenbatesteko baremoa:

- Ohorezko matrikula (bikain eta aipamena) = 10 puntu.
- Bikain (9 eta 10 puntu artean) = 9 puntu.
- Oso ongi (7 eta 8,9 artean) = 7,5 puntu.
- Nahiko edo gai (5 eta 6,9 artean) = 5,5 puntu.
- Gutxiegi, ez aurkeztua edo deialdi deuseztatua = 2,5 puntu.

Titulazio bikoitzak, bi jakintza-arlotakoak direnak, egin nahi dituzten ikasleek haietako bat aukeratu beharko dute.

c) Master-titulua ofiziala lortzeko ikasketetan matrikula egin duten ikasleek:

– Errendimendu akademikoko osagaia urtebeteko master ofizial bat egiteko edo bi urteko master baten lehenengo ikasturtea egiteko, eskatzaileak, batez beste eta gutxienez 9 puntuko nota lortu behar izan du masterra ikasteko bide ematen duen unibertsitate-tituluko ikasketetan. Ondorio horietarako, Ingeniaritza- eta Arkitektura-ikasketetan lortutako batez besteko notak 1,17 koefizienteaz biderkatuko dira. Zientzien adarreko ikasketak 1,11 koefizienteaz eta Osasun Zientzien adarreko ikasketak 1,05 koefizienteaz biderkatuko dira.

– Master ofizialeko bigarren mailarako beka eskatzen dituztenek ziurtatu beharko dute aurreko mailaren matrikulan hartu zituzten kreditu guztiak gainditu dituztela, eta batez besteko nota 9 puntukoa dela.

29. artikulua.– Errendimendu akademikoa, familia-errentari lotutako oinarritzko zenbatekoa lortzeko.

Beka-eskatzaileek familia-errentari lotutako oinarritzko zenbatekoa lortu ahal izango dute, baldin eta, gainerako betebeharrak beteta, honako errendimendu akademiko hau gainditu dutela egiaztatzen badute:

a) Gradu-ikasketetan edo goi mailako beste ikasketa batzuetan lehenengo aldiz matrikulatzen diren ikasleek gutxienez 6 puntuko batez besteko nota lortu behar izan dute unibertsitateko sarbide-proban. Unibertsitateko sarbide-proba egin ez dutenek unibertsitatean hasteko bidea eman dien batez besteko nota gutxienez 6 puntukoa izango da, edo handiagoa.

b) Bigarren mailan edo hurrengoetan matrikula egiten dutenek, master ofiziala izan ezik, unibertsitateko edo goi-mailako ikasketen azken mailan honako errendimendu hau lortu behar izan dute, matrikulatutako kredituak erreferentziatzat hartuta:

- Ingeniaritza eta arkitekturaren adarreko ikasketak: matrikulatu diren kredituen % 65.
- Zientzien ikasketak: matrikulatu diren kredituen % 70.
- Gainerako unibertsitateko edo goi-mailako ikasketak: matrikulatu diren kredituen % 80.

c) Master-titulua ofiziala lortzeko ikasketetan matrikula egin duten ikasleek:

– Urtebeteko master bat egiteko, edo bi urteko master baten lehenengo maila egiteko, eskatzaileak batez beste eta gutxienez, 7 puntuko nota lortu behar izan du masterra ikasteko bide ematen duen unibertsitate-tituluko ikasketetan. Ondorio horietarako, Ingeniaritza- eta Arkitektura-ikasketetan lortutako batez besteko notak 1,17 koefizienteaz biderkatuko dira. Zientzien adarreko ikasketak 1,11 koefizienteaz eta Osasun Zientzien adarreko ikasketak 1,05 koefizienteaz biderkatuko dira.

– Master ofizialeko bigarren mailarako beka eskatzen dituztenek ziurtatu beharko dute aurreko mailaren matrikulan hartu zituzten kreditu guztiak gainditu dituztela, eta batez besteko nota 7 puntukoa dela.

30. artikulua.– Genero-indarkeriaren biktimetzako salbuespen akademikoak.

1.– 2021-2022 ikasturteko beken eta ikasketarako laguntzen deialdi orokorrean parte hartuko duten eskatzaileei dagokienez, epai kondenatzaileen, babes-aginduen, biktima babesteko neurriak adosten dituen ebazpen judizialaren edo babes-agindua eman arte eskatzailea genero-indarkeriaren biktima dela adierazten duen Zerga Ministerioaren txostenaren bidez, 2020ko ekainaren 30etik 2022ko ekainaren 30era bitartekoak, egiaztatzen bada genero-indarkeriaren biktima direla, beka eskuratu ahal izango dute 2021-2022 ikasturtean, betiere indarreko araudian zehaztutako gainetarako betekizunak betetzen badituzte, 2020-2021 ikasturtean gainditutako irakastorduekin, beka jasotzeko urteen mugarekin eta 2020-2021 ikasturtean beka jasotzeko kreditu-ehuneko zehatz bat gainditzearekin lotutako baldintzak aplikatu gabe.

2.– Aurreko atalean aipatutako pertsonak, aurreikusitako betekizunak betetzeaz gain, honako hau egin beharko dute:

a) Egiaztatu beharko dute 2020-2021 ikasturtean errendimendu akademiko txikiagoa izan duela epai kondenatzailearen, babes-aginduaren, biktima babesteko neurriak adosten dituen ebazpen judizialaren edo babes-agindua eman arte biktima genero-indarkeriaren biktima dela adierazten duen Zerga Ministerioaren bidez egiaztatutako baldintza dela eta. Horretarako, bekadunak hautatzeaz arduratuko den unibertsitate-organo kolegiatuaren ziurtagiri bat aurkeztu beharko du, deialdian zehaztutako terminoetan.

b) 2021-2022 ikasturterako matrikulatu honako kreditu-, ordu- edo irakasgai-kopuru hauetan, gutxienez:

– Goi-mailako arte-, erlijio- eta militar-ikasketetako ikasleak: 30 kreditu.

– Unibertsitate-ikasleak: 30 kreditu edo ikasturte osoaren erdia gradu-titulazio bikoitzen kasuan.

## VI. KAPITULUA

### ESKABIDEAK AURKEZTEA

31. artikulua.– Nola aurkeztu eskabidea.

Honako urrats hauek egin behar dira, eskabideak aurkezteko:

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan eskaera-formularioan sartzeko identifikatzea: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1010607>. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan onartzen diren identifikatzeko eta

elektronikoki izenpetzeko bitartekoen bidez identifikatu eta izenpetu beharko dira eskaerak. Bitarteko horiek helbide honetan egongo dira eskura: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

Baldin eta eskatzaileak Espainiako nazionalitatea badu, Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakiaren eta iraungitze dataren bidez identifikatu beharko du. Eskatzailea atzerritarra baldin bada, Atzerritarren Identifikazio-zenbakia adierazi beharko du, bai eta Atzerritarren Identifikazio-txartelaren iraungitze data ere. Kasu batean eta bestean, eskatzailearen identitatea egiaztatu egingo da, pertsona horren esanbidezko baimenarekin, datuak egiaztatzeko zerbitzuaren bitartez. Zerbitzu hori Administrazio Elektronikoiari buruzko 21/2012 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian jasota dago.

Espainiakoak salbuetsita, Europar Batasuneko beste herrialde batzuetako herritarrek, eta Norvegiako, Islandiako, Liechtensteingo eta Suitzako herritarrek ez badute Atzerritarren Identifikazio-txartelik, nor bere herrialdean emandako beste nortasun-agiri ofizial baten bidez identifikatu ahal izango da. Kasu horietan, datuen egiazkotasuna dagokion agiriaren kopia bat aurkeztuta ziurtatu beharko da. Horrez gain, gainerako dokumentuak ere aurkeztu behar izango dira.

2.– Eskabide elektronikoa formalizatu ahal izango da, ordezkari zuzenbidean baliozkoa den edozein bitartekoren bidez egiaztatuz, baldin eta horren berri modu fidagarrian ematen badu. Ordezkari Eusko Jaurlaritzaren Ahalordetzeen Erregistro Elektronikoiari inskribatzea gomendatzen da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkaririk/>

3.– Eskaera egiteko formulario elektronikoa betetzea. Formulario horrek zenbait erlantz ditu eta erlantz horietan datu pertsonalak, familia mailakoak eta akademikoak bete behar dira. Bizikidetzaren unitateko kide guztiek alta eman beharko dute NANA edo bizileku-baimena (AIZ) duten nortasun-agiri eguneratuenarekin.

4.– Era elektronikoa bakarrik aurkeztu ahal izango da eskaerarekin batera joan beharko duen dokumentazioa, eta agindu honek 32. artikuluan adierazten duena izango da. Dokumentazio hori 4/2010 errege dekretuak, operatibitate arteko eskema nazionala onartzen duenak, eta berori garatzen duen araudiak erregulatutako formatuen arabera izango da.

Derrigorrezko agiri guztiak, «Gaineratutako agiriak» atalean, eskaera elektronikoa gaineratu beharko dira. Ez da paperez entregatutako dokumentazioa onartuko eta eskatzaile bakoitzak on line egin beharko du tramite hori.

5.– Eskaera telematikoa termino guztietan bete ondoren, «Eskaera aurkeztea» aukera selekzionatu beharko du eskatzaileak eta «Izenpetu» botoian klik egin beharko du, era elektronikoa izenpetzeko. Onartu ondoren, ziurtagiri elektronikoiaren PIN eskatuko da, izenpetzeko eta sarrera-erregistro elektronikoa emateko. Ondoren, eskaera aurkeztu izana justifikatzeko erregistro elektronikoiaren agiria deskargatzeko aukera egongo da eskura, eta ondorio guztietarako izango da baliagarri.

32. artikulua.– Aurkeztu beharreko agiriak.

Ez da beharrezkoa izango eskatzaileak aurreko ikasturteko espediente elektronikoa sartu zituen dokumentu iraunkorrak aurkeztea, baldin eta haietan adierazitako informazioa aldatu ez bada. Dokumentu horiek, besteak beste, dibortzio-epaia, hitzarmen arautzailea, IBANen banku-ziurtagiria, alokairu-kontratua (aldatzen ez bada), jabetza-erregistroko ohar soila, salerosketa-eskriturak, guraso baten heriotza-ziurtagiria, desgaitasun-mailaren ziurtagiria izan daitezke.

Aldi baterako agiriak, eskatzailearen zirkunstantzia pertsonalen arabera urteko eskabide bakoitzarekin aurkeztu beharko dira: errolda kolektiboa, matrikula, alokairua edo bizilekua ordaindu

izanaren egiaztagiria, agiri akademiko guztiak, nazioko edo nazioarteko mugikortasun-programetan parte hartu izanaren justifikazioa eta, hala badagokio, beste dokumentu batzuk.

1.– Eskatzaile guztientzat derrigorrezkoak diren dokumentuak:

a) Bizikidetzatza- edo familia-unitateari dagokion errolda kolektiboa. Bertan, 2020ko abenduaren 31ko egoerak agerian egon behar du.

b) Banku-ziurtagiria, eskatzailearen libretako edo kontu korronteko IBAN adierazita (eskatzaileak titularra edo titularkidea izan behar du). Ziurtagiri horren ordez, libretaren kopia edo banku elektronikoko inprimaki bat entrega daiteke. Bertan libretaren edo kontu korrontearen titularrek eta IBAN zenbakiak agerian egon behar dute.

2.– Zirkunstantzia pertsonalen arabera derrigorrezkoak diren dokumentuak:

a) Dibortzioa edo banantzea gertatuz gero, nahiz eta gurasoetako bat eskatzailearekin bizi ez: hitzarmen arautzailearen edota ebazpen judizialaren edota notario-hitzarmena, adostutako baldintzak zehazten dituen.

b) Hitzarmen arautzaileak ezartzen duen mantenu-pentsioa ez ordaintzeagatik demanda judiziala badago, horri buruzko epailearen egungo datako ebazpena aurkeztu beharko da.

c) 2021-2022 ikasturtean ikasketak direla-eta ohiko bizilekutik kanpo bizitzeagatik egoitza-osa-gaia eskatuz gero:

– Alokairuko kontratuaren kopia, eskatzailearen izena agertu beharko duena, eta 2021eko irailetik aurrerako hileko alokairuaren ordainagiria, ondorengo datuak agertu behar dituen: eskatzailearen izena, zenbatekoa, data eta ordainketaren kontzeptua.

– Egoitzan edo antzeko leku batean toki bat erreserbatu dela egiaztatzeko agiria, zenbatekoa jasota, eta lehen hilabetearen zenbatekoa ordaindu izanaren egiaztagiria.

Bi kasuetan, eta beharrezkotzat jotzen badu, alokairu-hilabete gehiago ordaindu izanaren egiaztagiria eskatu ahal izango ditu Administrazioak.

d) Elbarritasuna duten zenbatzeko moduko kideengatik aplikatzen den dedukzioaren kasuan, Foru Aldundiaren ebazpena, desgaitasun-maila aitortzen duenaren kopia.

e) Independente gisa eskaera aurkezten baduzu (gurasorik gabe)

– 2020ko abenduaren 31n datako ohiko etxebizitzaren alokairu-kontratua. Etxebizitza jabetzan badu, ez da ezer aurkeztu behar.

– Emantzipazio-programa batean parte hartzen dela egiaztatzeko ziurtagiria.

3.– Derrigorrezko agiriak, zirkunstantzia ekonomikoen arabera:

a) Elkarbizitza-unitateko kide guztiek 2020. urtean izan dituzten diru-sarrera, ondare eta bizitzeko bitarteko guztiei buruzko datuak aurkeztu eta egiaztatu beharko dituzte eskatzaileek. Datu horiek guztiak Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergaren aitortzean jasota agertzen badira, ez dute inolako dokumentazio egiaztagarriak aurkeztu beharko, Zerga Administrazioari egingo baitzaio zuzenean kontsulta.

b) Sustengatzaile ekonomiko nagusia den pertsonetakoren batek errentaren aitortzean beste autonomia erkidego batean aurkeztu badu, adierazpen horren kopia bat aurkeztu beharko du.

c) Ekonomia-sostengatzaile nagusietako bat 2021eko zerga-ekitaldian langabezia, EREn, ERTEen edo jarduera itxita egon bada, COVID alarma-egoeraren ondorioz: SEPEren edo enpresa-aren agiria, egoera hori egiaztatzen duena.

d) Errentari lotutako oinarrizko zenbatekoa jaso ahal izateko, 2020ko zerga-ekitaldian erabilgarri dauden gizarte-laguntzetako bat kobratu izana egiaztatu beharko da (DSBE, EPO, GLL, GSINen laguntzak, etab.).

4.– Zirkunstantzia akademikoen arabera derrigorrezkoak diren dokumentuak:

a) Euskaditik kanpoko unibertsitate edo zentroetan matrikulatuta dauden ikasleak:

– Egungo ikasturteko matrikularen kopia, gradu edo masterrarena.

– Master bat egiteko beka eskatzen baduzu: masterreko titulu ofiziala lortzera bideratutako ikasketen ziurtagiri akademikoa, batez besteko nota kalkulatzeko.

b) Unibertsitatez aldatu diren eta Euskadin eta kanpoan matrikulatuta dauden ikasleak:

– Masterra: ziurtagiri akademikoaren kopia osoa, sarbidea ematen dion graduaren batez besteko notarekin.

– Gradua: aurreko ikasturteko ziurtagiri akademikoa, batez besteko nota jasotzen duena.

c) Batxilergotik sartzen direnen 1. mailako ikasleak: unibertsitatean sartzeko notaren ziurtagiri akademikoa.

d) Batxilergotik sartzen ez diren 1. mailako ikasleak: ikasketetara sartzeko aukera ematen dien titulazioaren espediente akademikoa aurkeztu beharko dute eta titulazio horretan batez besteko nota agertuko da.

e) Eskatzaileak nazioarteko edo Estatuko mugikortasun-programetan parte hartzen baldin badu, parte-hartzea ziurtatzeko agiria, egunak eta egoitza-lekua adierazita.

f) Matrikula partziala eskatzen baldin badu, ikasketak lan-jarduerarekin bateratzen direla egiaztatzekeo agiriak (lan-kontratuak, lan-bizitza...)

g) Osasunari buruzko arrazoiak direla-eta, etekin akademikoan salbuespena eskatzen bada, mediku-ziurtagiria.

5.– Zenbait kasutan beharrezkoak izan daitezkeen beste dokumentu batzuk:

a) Ikasketa-laguntzen ziurtagiriak, unibertsitateak berak edo beste erakunde batzuek emandakoak.

b) Guraso batek norberaren konturako jarduera ekonomikoa jabea den lokaletakoren batean egiten badu, 2020ko zerga-ekitaldian jardueraren helbidea lokal horretan zegoela egiaztatu beharko da.

c) Ondasun higiezinaren jabetza soilak justifikatzeko, egungo Jabetza Erregistroko ohar simple bat atxiki beharko da.

Aurkeztutako dokumentaziotik Administrazioak ezin izan duenean ondorioztatu eskaera izapidetzeko beharrezkoa den alderdi bat, bitarteko telematikoen bidez lortu ezin izan den beste edozein agiri eskatu ahal izango da.

33. artikulua.– Eskaera aurkezteko epea.

1.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) argitara eman eta hurrengo egunean hasiko da eskaerak aurkezteko epea, eta hilabete bat geroago bukatuko da, ikasle guztientzat.

2.– Salbuespen gisa, eskatzaileek 1. puntuan adierazitako epea amaitu ondoren hasten den matrikula-epea duten ikasketak egiten badituzte, matrikula-dataren ondorengo 5 egun baliodunetan egin ahal izango dute beka-eskaera. Ez da inola ere onartuko 2021eko abenduaren 31tik aurrerako beka-eskaerarik.

3.– Eskatzaileek haietan matrikulatzeko epeak 2021eko abenduaren 31 baino geroago bukatzen duen ikasketak egiten badituzte eta ezin badute beka ikasturte honetan eskatu, 2022-2023ko ikasturtean eskatu ahal izango dute, betiere ikasketa horiek 2023ko ekainaren 22an baino lehenago bukatzen badute.

34. artikulua.– Eskabidea aurkeztearen ondorioak.

Beka-eskabidea aurkezteak berekin dakar:

1.– Deialdiaren oinarriak onartzea.

2.– Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50. artikulua 6. zenbakiak aipatu erantzukizuneko deklarazioa sinatzea. Testu bategina azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak onartu zuen.

3.– Interesdunaren baimena, eskabidean jasotako datuak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza sailko fitxategi informatizatueta sartzeko.

4.– Kide guztien familia-errenta eta ondarea zehazteko behar diren datuak, beka tramitatzeko orduan erabilgarri direnekin batera, kontsultatzeko eta era automatizatuan lortzeko, beste administrazio batzuekin operatzeko indarrean dauden zerbitzuen bidez, baimena ematea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari.

## VII. KAPITULUA

### IZAPIDEAK ETA ERABAKIA HARTZEKO PROZEDURA

35. artikulua.– Emateko prozedura.

1.– Dirulaguntza hau zuzenean emango da, azaroaren 17ko 387/2003 lege orokorrak, dirulaguntzenak, 22.2.b) artikuluan xedatutakoaren babespean.

2.– Dirulaguntza emateko prozedura hau erabiliko da: indibidualki ebaluatuko da eskaera bakoi-tza, eranskin honetan ezarritako irizpideekin kontrastatuta, dirulaguntza dagokion edo ez eta, baiezekoan, zein motatako eta zenbatekoko izango den zehazteko.

3.– Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariak ebatziko ditu eskaerak sei hileko epearen barruan, eskabideak aurkezteko azken epea amaitzen denetik aurrera zenbatuta.

4.– Epe hori igarotzen baldin bada, eta eskaeraren ebazpena jasota ez badago, eskaera ukatu duela joko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25 artikulua ezarritako ondorioetarako. Hala eta guztiz ere, geroago, berariaz ebatz daiteke.

### 36. artikulua.– Bekak kudeatzea.

1.– Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritzak kudeatuko ditu agindu honen bidez arautzen diren bekak.

2.– Unibertsitateek eta goi-mailako arte ikasketen eta goi-mailako ikasketen zentroek ere lagunduko dute bekak kudeatzen. Hezkuntza Saileko Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritzak aplikazio informatiko bat jarriko du parte hartzen duten erakundeen eskura, beka-eskaerak kudeatu eta izapidetzeko.

3.– Hona unibertsitate horiek nola hartuko duten parte:

a) Eskaerak jasoko dituzte.

b) Aurkeztutako eskaerak eta dokumentazio gehigarria, elkarren artean operatzeko zerbitzuek era automatikoa lortutako informazioa barne, egiaztatzea eta, behar izanez gero, atzemandako gabeziak edo akatsak zuzentzea edo aurkeztu ez den dokumentazioa aurkeztea eskatu ahal izango da.

Dokumentuetan atzemandako gabeziak edo akatsak zuzentzeko edo aurkeztu gabeko dokumentazioa aurkezteko 10 egun balioduneko epea egongo da, gehienez ere.

c) Egiaztatu egingo dute eskatzaileek bete egiten dituztela eskatutako betekizunak.

d) 2022ko otsailaren 1a baino lehenago, beka eskatu eta eskatutako betekizunak betetzen dituzten eskatzaileen zerrenda bidali beharko dute Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritzara; baldintza horiek betetzen ez dituzten eskabideen zerrenda ere bidali behar dute.

### 37. artikulua.– Hautaketa egiteko epaimahaiak unibertsitateetan.

1.– Aurkeztutako eskabideak aztertuko dituzte hautaketa-epaimahaiak, eta beka eman edo ez erabaki. Egindako bileren akten kopiak Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritzara bidali behar dituzte, epaimahaiburuaren oniritzia jaso ondoren.

2.– Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatean hautaketa-epaimahai bat eratu da, honela osatuta:

– Presidentea: unibertsitateko errektoreak izendatutako errektoreordea.

– Epaimahaiburuordea: unibertsitateko gerentea.

– Idazkaria: unibertsitateko gerentziako beken arloko edo bulegoko burua.

– Kideak: Hezkuntza Saileko bi ordezkari, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariak izendatuak; unibertsitateko bost irakasle, epaimahaiburuak izendatuak; Ikasle-kontseiluko hiru ordezkari, gehienez ere; eta beste pertsona batzuk –ez hiru baino gehiago– epaimahaiburuak beharrezkotzat jotzen baditu.

3.– Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitate pribatuetan, unibertsitatean pertsona bakarreko organo horien eginkizunen baliokideak dituzten pertsonak izango dira hautaketa-epaimahaiaren epaimahaiburu, epaimahaiburuorde eta idazkari. Hezkuntza Saileko bi ordezkari, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariak izendatuak, kide arituko dira, eta Hautaketa-epaimahaiaren eraketan parte hartuko dute.

4.– Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo dauden unibertsitateetan, eskaerak hautatzeko, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren aginduak xedatzen duenaren arabera sortuko dituzte

hautaketa-epaimahaiak (agindu horren bidez egiten da unibertsitateko eta goi-mailako ikasleentzako izaera orokorreko eta mugikortasuneko beken deialdia, 2021-2022 ikasturterako.

5.– Hautaketa-epaimahaiak ahalmena izango dute:

a) Beharrezkotzat jotzen diren agiri guztiak eskatzeko. Agiri horiei esker, bermatu egingo da, batetik, behar adina datu dituztela kasuan kasuko berezitasunei buruz, eta, bestetik, beketarako bideratutako bitartekoak behar bezala inbertitzen direla.

b) Beharrezkotzat jotzen diren txosten guztiak eskatzeko. Txosten horien bidez, erabaki-proposamena egiteko kontuan izan behar diren datuak zehaztu, jakin eta egiaztatu ahalgo dituzte.

6.– Organo horien jarduna Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikulutik 18.era bitartean jasotako arauetara egokituko da.

38. artikulua.– Beka-eskaera onartzeko edo ukatzeko proposatzea eta ebaztea.

1.– Beka-eskarien espedienteak aztertu ondoren, unibertsitateek eta goi-mailako arte-ikasketen eta bestelako ikasketen ikastegiek beka onartu eta ukatzeko proposamenak bidali beharko dituzte Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritzara, Hezkuntza sailak emandako baliabide informatikoen bidez, han prozeduraren izapideak egin ditzaten. Hautaketa-epaimahaiaren akta bidali beharko dute proposamen horrekin batera.

2.– Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritzak interesdunei jakinaraziko die arrazoiak zehaztuta onartzeko edo ukatzeko proposamena.

3.– Jakinarazpena jaso ondoren, proposamenarekin ados ez dauden eskatzaileek alegazioak egin ahalgo dizkiote hautaketa-epaimahaiari (matrikula egin duten ikastegiko epaimahaiari), bai eta egokitza jotzen duten dokumentazioa aurkeztu ere; horretarako, 10 egun baliadun izango dituzte, jakinarazpena iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Alegazioak aurkezteko, beken aplikatzaileak, bere ziurtagiri elektronikoarekin, sartu beharko du eskatzaileak, eta horretarako dagoen formularioa erabili beharko du. Halaber, nahi duen dokumentazio guztia espediente elektronikoari gehitu beharko dio.

4.– Alegazioak jartzeko emandako epean interesdunak adierazten badu proposamena onartzen duela baina uko egiten badio datu eta dokumentazio gehiago emateari, ebazpena emango da, alegatzeko epea agortu arte itxaron barik.

5.– Proposamenari alegaziorik aurkeztuz gero, edo horretarako epea igarotakoan, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritzak laguntza emateko eta ukatzeko ebazpena jakinaraziko du, arrazoiak zehaztuta, eta interesdunei jakinaraziko zaio.

6.– Prozedura-ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeari, hilabeteko epean, jakinarazpena iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Errekurtsua jartzeko, ziurtagiri elektronikoarekin beken aplikatzaileak sartu beharko du eskatzaileak, eta horretarako dagoen formularioa erabili beharko du. Halaber, nahi duen dokumentazio guztia espediente elektronikoari gehitu beharko dio.

7.– Behar den dokumentazioa errekeritzeko eskaerak, ebazpen-proposamena, laguntza emateko edo ukatzeko ebazpena eta, behar izanez gero, gora jotzeko errekurtsuaren ebazpena era elektronikoan bakarrik jakinaraziko zaizkie eskatzaileei, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan, <https://euskadi.eus/tablon-electronico-anuncios/resoluciones> web helbidean, argitara emanez. Halaber, komunikazio elektroniko

bat bidaliko zaie Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren «nire karpetara »: <https://www.euskadi.eus/micarpeta>. «Nire karpetara» sartzeko, ziurtagiri elektronikoa erabili beharko dute.

Abisu bat bidaliko da interesatuak jakinarazi duen dispositibo elektronikora edota posta elektronikora, aipatutako egoitza elektronikoa jakinarazpen bat eskura duela aditzera emateko.

39. artikulua.– Bekak ordaintzea.

1.– Beka emateko ebazpena jakinarazi ondoren, beka hilabeteko epe bakar batean ordainduko da, matrikula-osagaia izan ezik. Beka jasoko duten ikasleei dagozkien prezio publikoen ziurtagiria unibertsitateak aurkeztu beharko du, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritzak zerbateko egokiak ordain ditzan. Hori egin eta gero ordainduko da matrikula-osagaia.

2.– Agindu honetan zehaztutako beken onuradunek ez dute ordainketarik jasoko, harik eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomiadunek ematen dituzten izaera bereko laguntzen arloan abian den edozein itzultze- edo zigortze-prozedura amaitu arte, betiere azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onesten duen Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko testu bateginaren 50.4 artikulua xedatzen duenari jarraikiz, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arabera eta haren erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretuaren arabera.

## VIII. KAPITULUA

### BEKEN EGIAZTAPENA ETA KONTROLA

40. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

2021-2022 ikasturtean unibertsitateko edo goi-mailako ikasketak egiteko beka jasotzen dutenek hau guztia egin behar dute, azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorraren arabera eta haren erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretuaren arabera:

a) Beka zertarako ematen den, horretarako erabili beharko dute, ez beste ezertarako; alegia, matrikula egiteko, eskolara joateko eta ikasketekin loturiko gastuak ordaintzeko.

b) Egiaztatu egin beharko dute laguntza emateko eta hartaz baliatzeko ezarri diren baldintzak eta betekizunak betetzen dituztela.

c) Onartu egin beharko dituzte beka emateko zehaztutako baldintzak guztiak betetzen direla egiaztatzeko egiten diren jarduera guztiak, halakorik egiten bada, eta, beken helburua fiskalizatzeko, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatzen dieten informazio guztia eman beharko diete erakunde horiei.

d) Unibertsitateko edo goi-mailako ikasketak aldatuz gero, berariaz adierazi beharko dute aurreko urteetan beka izan duten ala ez.

e) Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritzari jakinarazi beharko diote helburu bere-rako laguntzarik jaso duten beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuetatik.

f) Matrikula ezetsiz gero eta laguntza emateko kontuan hartutako beste edozein baldintza aldatuz gero, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritzari jakinarazi beharko diote.

g) Irakaskuntza-zentroetako idazkaritzen bitartez, aipatutako organo eta erakundeek egiaztatu egingo dute onuradunek bekaren zenbatekoa beka eman zen xederako erabili dela. Ondore horietako, ikasleek matrikulatutako kredituen % 50 gainditu behar dituzte ohiko edo ezohiko deialdietan. Zientzien eta Irakaskuntza Teknikoen adarretako irakaskuntzen kasuan, gainditu beharreko gutxieneko ehuneko % 40 izango da. Ehuneko hori kalkulatzeko, ez dira aintzat hartuko baliozkotutako, aitortutako edo egokitutako kredituak. Gutxieneko ehuneko hori gaindituko ez balitz, bekaren osagai guztiak itzultzea eska dakioke ikasleari, matrikula-beka izan ezik.

h) Hezkuntza Sailak, eskura dauden operatibitate-zerbitzu guztietan, beka-eskaera tramitatzeko behar diren errenta- eta ondare-datuak egiaztatuko dituela elkarbizitza-unitateko zenbatzeko moduko kide guztiei jakinaraztea.

41. artikulua.– Beka jasotzeko eskubidea galtzea eta beka itzuli behar izatea.

1.– Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariak, espedienteko interesdunaren entzundariaren izapidea egin ondoren, emandako beka kobratzeko eskubidea galdu dela edo, hala badagokio, jasotako zenbatekoak itzuli behar direla eta aplikagarriak diren interesak itzuli beharko direla adieraziko du, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 53. artikuluan ezarritakoaren arabera –azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako testu bategina–, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren arabera eta haren erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretuaren arabera, honako arrazoi hauek direla-eta:

a) Eskatzaileak datuak ezkutatu edo faltsutu baditu beka jasotzeko.

b) Egiaztatzen bada jasotako beka bateraezina dela beste pertsona fisiko edo juridikoek emandako beka edo laguntzekin.

c) Helburu jakin bat betetzeko emandako bekaren zenbatekoa ez bada helburu hori betetzeko erabili.

d) Frogatzen bada beka jaso dutenek ez dutela ezarritako betekizunen bat betetzen edo ez dituztela betekizun horiek behar bezala egiaztatu.

e) Eskatzaileak ezeztatu egiten badu bekarekin egin behar zituen ikasketen matrikula.

2.– Egiaztatu egingo da ikasleek beka eman zen xederako erabili dutela. Ondore horietarako, matrikulatutako kredituen % 50 gainditu beharko dituzte ohiko edo ezohiko deialdian. Zientzien eta Ingeniaritza eta Arkitekturaren adarretan gainditu beharreko gutxieneko ehuneko % 40 izango da. Ehuneko hori kalkulatzeko, ez dira aintzat hartuko baliozkotutako, aitortutako edo egokitutako kredituak. Gutxieneko ehuneko gainditu ezean, bekaren osagai guztiak ordaindu beharra abiaraz daiteke, matrikularen prezio publikoaren osagaia izan ezik.

3.– Espedientearen izapideak egitean ondorioztatzen bada itzuli egin behar direla jasotako zenbatekoak –eta, behar izanez gero, baita haien legezko interesak ere–, ebazpen bat emango da; ebazpen horrek eduki beharreko informazio guztia izango du, dirua itzuli behar dela deklaratzeko duen jakinarazpena jasotzen denetik bi hilabeteko epean zenbateko horiek itzultzeko, betiere kontuan izanik, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren bigarren titulua (698/1991 Dekretuak ezartzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzudan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten entitate laguntzaileek bete beharreko betekizunak, erregimena eta betebeharrak). Familiaren egoera ekonomikoa oinarrizko betekizuna denez bekak emateko, eskatzaileak eta sostengu ekonomikoa ematen diotenen egungo eta bihar-etziko ondasunekin

erantzun beharko diote bat eginik Administrazioari, itzulketa horri erantzuteko, lege ezarritako mugapenak salbuetsita.

4.– Borondatezko epearen barruan dirua itzultzen ez bada, Ekonomia eta Ogasun Sailari jakinaraziko zaio, premiamendu-bidez ekin dezan, indarrean dauden xedapenen arabera.

42. artikulua.– Administrazioen eta unibertsitateen kontrola.

1.– Hezkuntza Administrazioeko organoek zehatz-mehatz kontrolatuko dituzte beketara bideratutako aurrekontu-baliabideak, behar bezala inbertitu direla ziurtatzeko.

2.– Hezkuntza Sailak laguntzeko eskatu ahal izango dio Ekonomia eta Ogasun Sailari, bai eta foru-aldundietako ogasun-sailei, Lanbideri edo administrazio publikoko beste edozein organori ere: batetik, zehazteko zer mekanismoren bidez baloratuko den ondoen familien errenta eta ondare erreala diru-laguntzak esleitzeko garaian; eta, bestetik, bekak lortzera bideratutako aitortpenetan gehiago kontrolatzeko iruzurra. Gainera, Hezkuntza Sailak erabili ahalko ditu erakunde horietan dauden datuak, familia-unitateko kide konputagarri guztiei buruzkoak, beharrezkotzat jotzen duen guztia egiaztatzeko.

3.– Eskaera aurkezteak adierazten du baimena ematen zaiola Hezkuntza Sailari errentaren eta ondarearen inguruko datuak eskuratzeko edo horiek zerga-administrazioetan daudenekin konparatzeko.

43. artikulua.– Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa.

Datu pertsonalak tratatu eta «Dirulaguntzak eta unibertsitate bekak» izeneko tratamenduari dagokion jardueran sartuko dira.

Arduraduna: Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

Xedea: Lehen eta bigarren mailako zikloetako, gradu eta master ofizialetako unibertsitate ikasleei bekak ematea. Tasa salbuespenak ematea. Unibertsitate alorrean jarduten duten entitateak laguntzea.

Legitimazioa:

– Tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea.

– 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena.

– 1/1997 Legegintza Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.

Hartzaileak:

– Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

– Ekonomia eta Ogasun Saila.

– Unibertsitateak.

Eskubideak: eskubidea duzu datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza kontsulta dezakezu gure webgunean: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gar-dentasuna/055400-capa2-eu.shtml>

Araudia:

– Datuak Babesteko Araudi Orokorra (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>)

– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673>)

## II. ERANSKINA

## MUGITZEKO ZAILTASUN BEREZIAK DITUZTEN ETA 2021-2022 IKASTURTEAN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN UNIBERTSITATE-IKASKETAK ETA GOI-MAILAKO BESTE IKASKETA BATZUK EGITEN DITUZTEN DESGAITASUN FISIKO ETA PSIKIKOA DUTEN PERTSONEN GARRAIO-GASTUAK ORDAINTZEKO DIRULAGUNTZAK

## 1. artikulua.– Xedea eta izaera.

1.– Hauxe da deialdi honen xedea: beren ezaugarri fisikoak edo psikikoak direla-eta, mugitzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleei Euskal Autonomia Erkidegoko ikastegietara lekualdatzeko garraio-gastuak ordaintzeko dirulaguntzak ematea, baldin eta ikasle horiek 2021-2022 ikasturtean unibertsitate-ikasketak, goi-mailako arte-, erlijio- eta militar-ikasketak Euskal Autonomia Erkidegoan egiten badituzte. Eta, betiere, baldin eta garraiobide publikoak, haien ezaugarriei egokিতuta, ezin badituzte erabili; edo garraiobide publikoak erabiltzeko, beste pertsona baten laguntza behar badute, 4. artikuluan ezarritako betekizunak beteta.

2.– Laguntza horiek dirulaguntzak dira. Araubide juridikoan aurreikusten ez den guztirako hauxe aplikatuko da: Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren bidez onartua, eta, batez ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren laguntzen eta dirulaguntzen erregimenari eta arau-hausteen eta zigorren araubideari buruzko xedapenak, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arabera eta haren erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua.

## 2. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Pertsona interesdunek bide elektronikoa erabili ahal izango dituzte prozedura honetako izapideak eskatzeko, kontsultatzeko eta bideratzeko. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa onartzen diren identifikatzeko eta elektronikoki izenpetzeko bitartekoen bidez identifikatu eta izenpetu beharko dira eskaerak. Bitarteko horiek helbide honetan egongo dira eskura: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

2.– Era elektronikoa, ordezkari baten bidez, egin ahal izango du zuzenbidean baliozkoa den eta ordezkaritza dagoela modu fidagarrian egiaztatzen duen edozein bitartekoren bidez.

3.– Izapidetze elektronikoa ondoko bi hauetan dago araututa: Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuan, eta E-Administrazioarako Plataforma Teknologikoa (PLATEA) onartzen duen Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpenean. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa honetan zehazten da nola izapidetu eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0175508>

Herritarrek, eskabidea egiteko eta dokumentuak aurkezteko, bide presentziala edo elektronikoa erabiltzeak ez du esan nahi nahitaez baliabide horiek erabili behar dituztenik prozeduraren ondorengo izapideetan, edozein unetan alda daitezke eta.

Eskaeraren ondorengo izapideak, bide elektronikoa bidez egin nahi badira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire Karpeta» atalaren bidez egingo dira. <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

### 3. artikulua.– Laguntzaren zenbatekoa.

1.– Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, eskatzaileak aurkeztu duen aurrekontua oinarritzat hartuko da. Aurrekontu hori balioetsiko da, dagokion sektoreko jardunbide egokien arabera, eta Hezkuntza Administrazioak beste kostu edo irtenbide batzuk ere proposatu ahal izango ditu.

2.– Onartzen den aurrekontu guztia (% 100) finantzatu ahal izango da, eta eskaera bakoitzeko, gehienez, 12.000 euro emango dira, horretarako ezarritako diru-kopurua agortu arte.

Beharrezko dirulaguntzaren kostua egoitza baten kostua baino askoz ere handiagoa baldin bada, eskatzaileari proposatuko zaio beste aukera hori kontuan hartzea; betiere, baldin eta egoitza egokituta eta ikastegitik hurbil baldin badago, eta garraibide publiko egokiak eskuragarri baditu. Egoitzaren aukera hautatzen badu, deialdi honetako 1. eranskinean zehaztuta dagoen unibertsitate-ikasketetarako beka, egoitzari eta garraioari buruzko osagaiak dituen, eskatu ahal izango du.

3.– Lehen aipatu den 2. atalean jasotako muga aintzat hartuta, egokituta dagoen ibilgailu pribatua erabiliz gero joan-etorrietarako, laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, kilometro bakoitza 0,29 euroko kopuruaz biderkatuko da. Eskatzailearen ohiko bizilekutik ikastegirainoko distantzia laburrena kalkulatzeko eta ikastegia kokatzeko, Google Maps informatika-tresna, honako web-helbide honetan erabilgarri dagoena, erabiliko da: <https://maps.google.es/>. Horretarako, autoz joateko distantziarik laburrena kalkulatzeko aukera hautatuko da, autobideak eta bidesariak barne hartuta.

4.– Lehen aipatu den 2. atalean jasotako muga aintzat hartuta, egokitutako taxi bat joan-etorrietarako erabiliz gero, gehienezko dirulaguntzak ezin du inola ere gainditu Hezkuntza Administrazioak sektoreko elkarte ordezkagarriari eskatutako aurrekontua, hala egiteari egoki irizten badio. Lekualdaketa zer lurraldetan egingo den, han eskatuko du aurrekontua administrazioak.

5.– Garraibide publiko kolektiboa erabiltzeko, beste pertsona baten parte-hartzea behar bada, beste pertsona horren lekualdaketa gastuak ere ordainduko dira.

6.– Deialdi honen xedea den garraio-gastua ordaintzen laguntzeko erabilgarri dagoen kreditua ez bada ontzat jotako eskabide guztietan jasotako kostu guztiak finantzatzeko bezain handia, onartu diren aurrekontu guztiak kontuan hartuko dira, eta onartutako eskabide guztietan laguntzaren zenbatekoa murriztuko da aurrekontuetan dagoen gabeziaren proportzio berean.

### 4. artikulua.– Betekizunak.

Beka eskuratzeko eskubidea izateko betekizunak hauek dira:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri batean erroldatuta egotea eskabidea aurkezten den egunean, eta justifikatzea gutxienez urtebetez EAEn erroldatuta egon direla, eskabideak aurkezteko epe orokorra amaitzen denean.

b) Foru Aldundiaren Balioespen eta Orientazio Unitateak ziurtatuta edukitzea, eskaera bakoitzaren motaren arabera.

–Mugikortasun-arazoak direla-eta, garraibide publiko kolektiboak erabiltzeko ezintasuna: % 33ko minusbalioetasuna edo handiagoa, eta garraibide publikoak erabiltzeko mugikortasun-arazoak, abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren 3. eranskineko baremoaren arabera (minusbalioetasunaren maila onartzeko, aitortzeko eta kalifikatzeko prozesua arautzen du errege-dekretu horrek). Laguntza jasotzeko, eskatzaileak egiaztatu egin beharko du A, B edo C egoeran dagoela. Egoera horietako batean ez badago, gutxienez 10 puntu lortu beharko ditu D eta H ataletako puntuazioak batzen dituenean.

– Hala badagokio, beste pertsona baten beharra izatea, ikastegira lekualdatzeko: beste pertsona baten beharra ziurtatu behar da, minusbaliotasun-maila onartzeko, aitortzeko eta kalifikatzeko prozesua arautu zuen abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren 2. eranskinean ezarritako baremoaren arabera; edo apirilaren 20ko 504/2007 Errege Dekretuaren 1. eranskinean ezarritakoaren arabera. Azken horren bidez onartu zen mendekotasuna duten pertsonen balioespen-baremoa, abenduaren 14ko 39/2006 Legeak ezarritakoa; hain zuzen, autonomia pertsonalaren sustapenari eta mendekotasuna duten pertsonentzako laguntzari buruzko legeak ezarritakoa.

c) Matrikula egitea eta 2021-2022 ikasturtean modu presentzialean egitea honako ikasketa hauetako bat:

- Gradu- unibertsitate-titulu ofiziala lortzera bideratutako ikasketak.
- Unibertsitate-masterreko titulu ofiziala lortzera bideratutako ikasketak.
- 25 urte baino gehiagokoak unibertsitatean sartzeko prestakuntza-ikastaroak, unibertsitate publikoetan emandakoak.
- Goi-mailako arte-ikasketak.
- Goi-mailako ikasketa militarrik.
- Goi-mailako erlijio-ikasketak.

d) Administrazioak laguntzak eta dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren datu-basean egon behar du eskatzaileak. Hirugarren interesdunaren alta eman edo datuak aldatzeko: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>

Banku-ziurtagiria, eskatzailearen libretako edo kontu korronteko IBAN adierazita (eskatzaileak titularra edo titularkidea izan behar du). Ziurtagiri horren ordez, libretaren kopia edo banku elektronikoko inprimaki bat entrega daiteke. Bertan libretaren edo kontu korrontearen titularrek eta IBAN zenbakiak agerian egon behar dute.

e) Txosten justifikatu baten bitartez ziurtatzea, garraibide publiko kolektiboak ez direla egokiak eskatzailearen beharretarako, eta ikastegira lekualdatzeko bide osoan edo zati batean garraio-neurri bereziak behar dituela.

f) Ikasleek ez izatea bekarekin egin nahi dituzten ikasketen maila bereko edo handiagoko titulurik, eta ez betetzea horrelako tituluren bat eskuratzeko legezko betekizunak. Ondorio horietarako, Diplomatura, Ingeniaritza Teknikoko edo Arkitektura Teknikoko titulazioa lortzeko moduan daudenek edo jada lortu dutenek ez dute bekarik lortuko gradu-ikasketak egiteko.

g) Beren ezaugarri fisikoak edo psikikoak direla-eta, mugitzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleei ikastegietara lekualdatzeko garraio-gastuak ordaintzen laguntzeko dirulaguntzarekin bateragarria ez den beste beka edo dirulaguntza bat ez jasotzea.

5. artikulua.– Eskatzailearen betekizun jakin batzuk egiaztatzea.

Azaroaren 11ko 1/ 1997 Legegintzako Dekretua aplikatuz, honako betekizun hauek egiaztatuko dira, eskabidean txertatuko den erantzukizunezko adierazpen baten bidez:

– Helburu bererako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo beste baliabide batzuk eskatu, eta, hala badagokio, jaso direla adierazi behar du erakunde eskatzaileak, edozein administrazio-tatik edo erakunde publiko zein pribatutatik etorriak direla ere.

– Eskatzaileak egiaztatu behar du ez dagoela laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzea eragozten dion zehapen administratibo edo penal baten pean, edo ez daukala horretarako legezko debekurik.

Eskatzaileak eskabidean eta dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak direla adieraztea, eta laguntza hauen onuradun izateko indarrean den araudian ezarritako betekizunak betetzen dituela adieraztea. Eskabideetan sartuko da badagoela aukera laguntza eskatzen duen pertsonak honako hau baimen dezan, espresuki: gainerako datuak edo agiriak organo kudeatzaileak lortu edo egiaztatzea, bai bide presentziala, bai elektronikoa erabilita, eta, betiere, Administrazio Publikoak dituen egiaztatze-, kontrolatze- eta ikuskatze-ahalmenen kalterik gabe.

6. artikulua.– Bateragarritasuna beste beka eta laguntza batzuekin.

1.– Dirulaguntza horiek bateragarriak dira beste erakunde batzuek helburu bererako ematen dituztenekin, bai eta 2021-2022 ikasturtean unibertsitateko eta goi-mailako ikasketak egiteko bekekin ere, betiere beken finantzaketa guztira handiegia ez bada.

2.– Hezkuntza sailak, haien ezaugarri fisikoak edo psikikoak direla-eta, zailtasun bereziak dituzten ikasleei ematen dien lekualdaketa-laguntzaren zenbatekoak ezin izango du benetako kostua gainditu. Laguntza horrek EAEko ikastegietara unibertsitate-ikasketak edo goi-mailako ikasketak egitera joateko gastuak ordaintzen laguntzen die ikasle horiei. Gaindituz gero, dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da lekualdaketa-kostu errealearen % 100era iritsi arte, gehienez.

7. artikulua.– Nola aurkeztu eskabidea.

Eskaerak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu ahalko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa (<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0175508>). Era berean, aurrez aurre aurkeztu ahal izango dira Herritarrentzako Arreta Bulegoetan, Zuzenean zerbitzuan. Aurrez hitzordua eskatu beharko da, honako helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/cita-previa-zuzenean>; edo bestela, aurrez hitzordua eskatu edo baliogabetzeko telefono eksklusiboaren bidez: 945 01 90 00.

Eskabideak aurkezteko lekuak izango dira, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuak zehaztutako egoitzetako edozein edo Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan adierazten diren tokiak. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari zuzendutako idazkiak udal-erregistroetan aurkezteko, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzeta-hitzarmena izenpetu duten udaletara ere jo daiteke.

Eskabideak aurkezteko argibideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0175508>

Eskatzaileek eskabidea eta dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz aurkez dezakete, nahi duten eran. Prozedura osoan zehar, eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan ezartzen den moduan.

8. artikulua.– Aurkeztu beharreko agiriak.

Eskatzaileek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

a) Administrazio-egoitzaren ziurtagiria; bertan jasoko da Euskal Autonomia Erkidegoko zein udalerritan dagoen erroldatuta eta noiztik.

b) Dagokion foru-aldundiak emandako desgaitasun-ziurtagiria, 4. artikuluan zehaztutako baldintzak egiaztatzen dituena.

c) 2021-2022 ikasturtean 4. artikulua c) ataleko ikasketaren bat egiteko matrikula egin izanaren egiaztatzea.

d) Txosten bat, hau ziurtatuko duena: garraio-bide publiko kolektiboak ez direla egokiak eskatzailearen beharretarako, eta ikastegira joateko eta handik etortzeko bide osoan edo zati batean garraio-neurri bereziak behar dituela.

e) Aurrekontu zehatza, honako hauek biltzen dituena: dirulaguntzaren bidez ordainduko den ibilbidea, ikasturtean zenbat bidaia egitea aurreikusten den, bidaia bakoitzaren unitate-kostua, bidaia guztiak kontratatzeagatik ezarritako deskontua (hala dagokionean), pertsona laguntzailearen kostua, pertsona horren lan-ordutegia edo erabilgarritasuna, bai eta egoera ulertzeko eta baloratzeko beharrezkotzat jotzen diren gainerako datu guztiak ere.

f) Banku-ziurtagiria, eskatzailearen libretako edo kontu korronteko IBAN adierazita (eskatzaileak titularra edo titularkidea izan behar du). Ziurtagiri horren ordez, libretaren kopia edo banku elektronikoko inprimaki bat entrega daiteke. Bertan libretaren edo kontu korrontearen titularrek eta IBAN zenbakiak agerian egon behar dute.

#### 9. artikulua.– Aurkezteko epea.

1.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) argitara eman eta hurrengo egunean hasiko da eskaerak aurkezteko epea, eta hilabete bat geroago bukatuko du, ikasle guztientzat.

2.– Salbuespen gisa, eskatzaileek 1. puntuan adierazitako epea amaitu ondoren hasten den matrikula-epea duten ikasketak egiten badituzte, matrikula-dataren ondorengo 5 egun baliorduetan egin ahal izango dute beka-eskaera. Ez da inola ere onartuko 2021eko abenduaren 31tik aurrerako beka-eskaerarik.

#### 10. artikulua.– Hautatzeko eta izapideak egiteko batzordea.

1.– Hautaketa-batzorde batek aztertuko ditu espedienteak, eta ebazpen-proposamenak egingo ditu. Unibertsitate Ataleko arduraduna izango da batzordeburua; Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritzako bi teknikari, zuzendariak aukeratutakoak, izango dira batzordekideak.

2.– Hautaketa-batzorde horrek Unibertsitateetako zuzendariari igorriko dio ebazpen-proposamena. Bertan, adieraziko da: alde batetik, zein eskatzailek jasoko duten laguntza, eta zenbateko laguntza jasoko duten; eta, beste batetik, zer eskaerak ez dituzten betetzen ikasle desgaituentzako garraio-laguntza jasotzeko betekizunak, eta zergatik ez.

#### 11. artikulua.– Prozedura ebaztea eta errekurtsioak.

1.– Deialdi honetan arautzen den prozedura ebazteko eta jakinarazteko epea, gehienez ere, sei hilabetekoa da. Epe hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasiko da. Epe hori igaro ondoren, interesdunei ez bazaie ebazpenik jakinarazi, beka-eskaera ezetsi egin dela joko da, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25 artikuluan arautzen dituen ondorioetarako.

Eskatzaileei bakarrik jakinaraziko zaie era elektronikoan ebazpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuz, <https://euskadi.eus/tablon-electronico-anuncios/resoluciones> webgunean. Halaber, jakinarazpen elektroniko bat

bidaliko zaie Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «nire karpeta»: <https://www.euskadi.eus/mikarpeta>. Ziurtagiri elektronikoarekin sartu beharko da bertara.

Mezu bat bidaliko da interesdunak jakinarazi duen gailu elektronikora eta/edo posta elektronikora, eta jakinaraziko zaio jakinarazpen bat eskuragarri jarri dela aipatutako egoitza elektronikoa.

2.– Ebazpen horren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango diote Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeari, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epean.

12. artikulua.– Laguntzen ordainketa.

1.– Bekak emateko ebazpena jakinarazi ondoren, beka aldez aurretik ordainduko dira, ordainketa bakarrean eta hilabeteko epean.

2.– Dirulaguntzaren onuradunek ez dute ordainketarik jasoko, harik eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomiadunek ematen dituzten izaera bereko laguntzen arloan abian den edozein itzultze- edo zigortze-prozedura amaitu arte, betiere azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onesten duen Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko testu bateginaren 50.4 artikulua xedatzen duenari jarraituta, eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arabera eta haren erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretuaren arabera.

13. artikulua.– Laguntzen justifikazioa.

2022ko abuztua baino lehenago aurkeztu beharko dituzte Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritzan aurkeztutako eta adostutako aurrekontuaren fakturak onuradunek, joan-etorriak egin direla justifikatzeko. Fakturak ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

- Zenbakia eta, behar izanez gero, seriea.
- Eman den data.
- Operazioaren data, emate-datarena ez bada.
- Ematen duenaren IFZ, izen-deiturak, merkatu-izena edo izendapen soziala.
- Emandako zerbitzuen identifikazioa.
- Zerga-tasa eta, aukerakoa, «BEZa barne» esaera.
- Kontraprestazio osoa.

Justifikazioak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu ahaliko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa «Nire karpeta» atalean ikusi beharko da (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>)

Era berean, justifikazioak aurrez aurre aurkeztu ahal izango dira Herritarrentzako Arreta Bulegoetan, Zuzenean zerbitzuan. Aurrez hitzordua eskatu beharko da, honako helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/cita-previa-zuzenean>; edo bestela, aurrez hitzordua eskatu edo baliogabetzeko telefono eskusiboaren bidez: 945 01 90 00.

Justifikazioak aurkezteko lekuak izango dira, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuak zehaztutako egoizetako edozein

edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan adierazten diren tokiak. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari zuzendutako idazkiak udal-erregistroetan aurkezteko Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzaren hitzarmena izenpetu duten udaletan ere aurkez daitezke.

Justifikazioari buruzko argibideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0175508>

14. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

Honako hauek dira dirulaguntzaren esleipendunen betebeharrak, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arabera eta haren erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretuaren arabera:

a) Zertarako eman den laguntza, horretarako erabiltzea; alegia, laguntza ematean ezarritako baldintzen arabera egin beharko dituzte ikastegiko joan-etorriak.

b) Beken helburua fiskalizatzeko lanetan, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatutako informazio guztia eman beharko dute, eta, behar izanez gero, laguntza emateko ezarri ziren baldintzak bete dituztela egiaztatzeke egiten diren jarduera guztiak onartu beharko dituzte.

15. artikulua.– Beka jasotzeko eskubidea galtzea eta beka itzuli behar izatea.

1.– Unibertsitateetako zuzendariak, espedienteko interesdunaren entzunaldiaren izapidea egin ondoren, emandako beka kobratzeko eskubidea galdu dela edo, hala badagokio, jasotako zenbatekoak itzuli behar direla eta aplikagarriak diren interesak itzuli beharko direla adieraziko du, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 53. artikuluan ezarritakoaren arabera –azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako testu bategina–, eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arabera eta haren erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretuaren arabera, honako arrazoi hauek direla-eta:

a) Eskatzaileak datuak ezkutatu edo faltsutu baditu beka jasotzeko.

b) Egiaztatzen bada jasotako beka bateraezina dela beste pertsona fisiko edo juridikoek emandako beka edo laguntzekin.

c) Helburu jakin bat betetzeko emandako bekaren zenbatekoa ez bada helburu hori betetzeko erabili.

d) Frogatzen bada beka jaso dutenek ez dutela ezarritako betekizunen bat betetzen edo ez dituztela betekizun horiek behar bezala egiaztatu.

e) Eskatzaileak indargabetu egiten badu bekarekin egin behar zituen ikasketen matrikula edo ikastegira joan ez bada.

2.– Espedientearen izapideak egitean ondorioztatzen bada itzuli egin behar direla jasotako zenbatekoak –eta, behar izanez gero, baita haien legezko interesak ere–, ebazpen bat emango da; ebazpen horrek eduki beharreko informazio guztia izango du, dirua itzuli behar dela deklaratzeko duen jakinarazpena jasotzen denetik bi hilabeteko epean zenbateko horiek itzultzeko, betiere kontuan izanik, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren bigarren titulua (698/1991 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzudan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte

hartzten duten entitate laguntzaileek bete beharreko betekizunak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituen).

3.– Borondatezko epearen barruan dirua itzultzen ez bada, Ekonomia eta Ogasun Sailari jakinaraziko zaio, premiamendu-bidez ekin dezan, indarrean dauden xedapenen arabera.

16. artikulua.– Datuen babesari buruzko oinarritzko informazioa.

Datu pertsonalak tratatu eta «Dirulaguntzak eta unibertsitate bekak» izeneko tratamenduari dagokion jardueran sartuko dira.

Arduraduna: Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

Xedea: Lehen eta bigarren mailako zikloetako, gradu eta master ofizialetako unibertsitate ikasleei bekak ematea. Tasa salbuespenak ematea. Unibertsitate alorrean jarduten duten entitateak laguntzea.

Legitimazioa:

– Tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea.

– 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena.

– 1/1997 Legegintza Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.

Hartzaileak:

– Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

– Ekonomia eta Ogasun Saila.

– Unibertsitateak.

Eskubideak: eskubidea duzu datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza kontsulta dezakezu gure webgunean: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gar-dentasuna/055400-cap2-eu.shtml>

Araudia:

– Datuak Babesteko Araudi Orokorra (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>)

– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673>)